


eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko  
Unibertsitatea



**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**  
**Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación**

**SOZIOLOGIA GRADUA**  
IKASTURTEA 2015-2016

**SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN  
FRANZISKO AUZOAN  
PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA  
ERRESISTENTZIA**

EGILEA: EDER BENGOETXEA ORUE  
ZUZENDARIA: IGNACIO MENDIOLA GONZALO

Data, 2016eko Irailaren 7a

## Aurkibidea

---

1.SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA .....	4
2. MARKO TEORIKOA .....	5
2.1 Kokagunea: San Franzisko eta inguruak .....	5
2.2 Espazioa: Sarrera bat .....	10
2.3 Kontzeptua: Heterotopia.....	11
2.4 Mekanismoak: Kontrola, kamarak, poliziak.....	13
2.5 Prozesua: Gentrifikazioa.....	17
2.6 Boterea: Autoritateen diskurtsoak.....	19
2.7 Ekintza: Taktika eta erresistentziak.....	20
2.8 Ondorioak: heterotopia determinatu.....	22
2.9 Gehigarri bat: espazioaren zehaztapena.....	23
2.10 Helburuak.....	24
3.METODOLOGIA .....	26
3.1 Ikerketa diseinua.....	26
3.2 Laginketa.....	27
3.3 Teknikak.....	28
4.EMAITZAK ETA ANALISIA .....	36
5.ONDORIOAK, ZUZENKETAK ETA AUTOKRITIKA.....	50
ERREFERENTZIAK .....	53
ERANSKINAK .....	56

SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN:  
PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA,  
TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA





## 1.SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

---

Espazioa agerikoa zaigun zeozer bada ere, eta gu harekin dugun harremana hutsala dela uste arren, ez da horrela. Espazioa egiten gaitu, eta geuk egiten dugu. Harreman dialektiko honetatik sortzen dire geure inguruan eratutako espazioak, edonolako irizpide eta kategorien arabera ditzazkegularik (pisu bateko gela ezberdinen disposizioa, hiri bateko kaleen forma, etxe blokeen eta baserri baten arteko desberdintasunak...). Gu bertan bizi gara, eta denbora bexalaxe "habitatatu" egiten dugu.

Baina espazioak ez dira edonola eratzten. Norbait eratzten, eraldatzen, moldatzen ditu interes eta behar batzuen arabera. Kontua da nor egiten duten hori espazioarekin. Adibide bat jartzearen, nork eraiki ditu hiri handien periferietan aurki ditzazkegun etxe bloke handiak? Zer nolako bizimodura bultzatzen dituzte eraikin hauek haietan bizi diren pertsonen? Nola burutzen dituzte bizitzaren erreproduktzioarako beharrezko diren funtzioak (lana, kontsumoa...)? Bertan bizi diren pertsonen eraiki dituzte? Edo hauen salmentarekin aberastea helburu duen eraikitzaile batek?

Hau guztiarekin esan nahi dudana zera da, espazioaren eraikuntza ez dela edonola egindako zerbait, baizik eta interes eta bizimodu zehatz batzuk ezartzea helburu duen prozesu bat, inkoszienteki edo erreflexiboki egin daitekeena, baina betiere egiten dena. Geure bizitza egiten dugun tokia baita espazioa.

Espazioa, interes jakin batzuen arabera eraldatzen den heinean, horren kontrolaren inguruko diskurtso bat eta horren mantentze normatibo baten inguruko praktika batzuk garatuko dira (seguritate eredu bat).

Hau guztia geure inguruan ikus dezakegun leku bat Bilboko San Franzisko eta Bilbo Zaharrak auzoetan ematen da. Denbora luzez bere kokapenagatik haren morfologia udalagatik eraldatua izan da interes ekonomiko batzuen mesedetan. Horrek guztiak azal dezake auzoan zehar azkeneko urteetan agertu diren leku zehatz batzuetan kokatuak izan diren bideokamerak eta etorkinez beteriko kaleetan etengabe pasatzen diren polizia autoak, hainbat kaleetan agertzen ari diren renta altuagoko (auzoko biztanle tradizionalekin konparatuta) komertzio eta tabernak zabaltzen joan diren bitartean.

Hau guztia herrialde aberatsen beste hiri askotako auzo pobretuetan ematen ari da. Eta askotan prozesu horren identifikazioa eman den heinean (gentrifikazioa, eta honek dakarren politika sekurtarioa), ez da askotan zuzenean eragiten dien pertsonen so egin, eta hori da besteak beste ikerketa honen xedea. Batetik San Franziskoko auzoan ematen ari diren dinamika urbanistiko eta sekurtarioen eta auzo honetan bertan ematen ari den gentrifikazio prozesuaren berri ematea, eta bestetik auzokideen artean zer nolako aldaketak gertatu diren haien bizimodu, jokaera eta disposizioetan kontrolaren politika guzti hauek martxan jarri ziren momentutik, edo behintzat modu esanguratsu batean bideokameren bidez eta horrek suposatzen duen panoptismoaren bidez ikuskaritza guzti hau areagotu zenetik.



## 2. MARKO TEORIKOA

---

Ikerketa enpiriko honen azalpen teorikoan lehendabizi lan honen testuinguru espazialaren hurbilpen historikoa egingo dut, gaur egungo egoerara nola heldu den azaltzen lagunduko duelakoan. Gaur egungo egoeraren inguruko zertzelada batzuk ere botako ditut. Ondoren, espazioaren ikerketa soziologikorako (honek harreman sozial eta botere erlazioekin duen zerikusia azpimarratuz) pauta batzuk emango ditut, eta hau izpide erabilita Foucault-ek plazaratutako heterotopia kontzeptua (Foucault, 1999) plazaratuko dut, espazio hau interpretatzen lagungarri izango den kontzeptu bezala aurkeztuz. Honekin jarraiki, eta amaieran azalduko dudana heterotopiaren kontzeptu kokatu eta determinatu baten irudiarekin lotuta, espazioaren kontrolean agentzia zuzena duten dispositiboak landuko ditut (bideokamerak eta polizia). Gero, eta hauek suposatzen dituzten zenbait subjektuen disziplinaren txanponaren beste alde bezala, beste zenbait guneeetan burutzen ari den gentrifikazioaren inguruan arituko naiz, fenomeno honen inguruko hurbilpen teoriko bat burutuz eta baita ere honen lekuko izan diren testigantza batzuk jasoz bigarren mailako iturrien bidez. Gainera, kontrolari aurre egiten dieten erresistentzia taktikei erreparatuko diet, autore nagusitzak de Certeau (De Certeau 2001) erabiliko dudalarik. Azkenik, arestian aipatu eta azalduko prozesu guztiak heterotopiaren kontzeptu determinatu batean sintetizatzen saiatuko naiz, Bilboko San Franzisko eta Bilbo Zaharra auzuneak espazioaren kudeaketaren inguruko problematikak kontzeptu horren bidez azaleratzen saiatuz.

### KOKAGUNEA: SAN FRANZISKO ETA INGURUAK


San Franzisko eta haren inguruan dauden auzoak (Zabala eta Bilbo Zaharra) Bilbo hiria bera bezain zaharrak dira, izan ere, hau uste da izan zela Bilbo hiriaren jatorrizko gunea, haren fundazioa (1300. urtean) baino lehenagoa baita (Askunze, 2001: 214). Hala ere, denbora joan ahala eta gaur egun Alde Zaharra bezala ezagutzen dugun guna urbano hori sortzen joan zen heinean, hemen zegoen etxebizitza eskasia eta hauen prezioa zela eta, populazio behartsuena ibaiak bestaldera bizitzera joan behar izan zen (*Ibidem*: 214).

Gune honen biztanleria bere horretan jarraitu zuen erdi aroan eta aro modernoan Bilbok izan zuen garapen txikiagatik (1860. urtean, non jada ekonomia industrial baten hastapenak ezarrita zeuden, biztanleria ez zuen 20.000 pertsonaz gora egiten ( Beascochea Gangoiti, 2003: zg)) XVIII. mendearan amaiera aldean oraindik hiria bi guneeetan bana zitekeen. Batetik, hirigunea, gune urbanistikoki oso hertsia, bere ondoan San Anton elizaren aurrekaldean zeukan plaza zaharrarekin, merkatal gune garrantzitsua, eta bestetik Areatzako pasealekua, aisialdi leku eta ontzientzako dike ezin hobea (Abad, 2012: 225), eta bestetik errebalak, ez zutenak hiriguneearekin bat egiten baizik haren luzapen moduko bat osatzen zuten. hauen barnean garai horretan Atxuri edo Bilbo Zaharra zirelarik nagusienak ( *ibidem*: 225). Azken honen kasua agian esanguratsuen da, izan ere, hirigunetik ibaiak berak banatzen zuelako, horrek inplikatzan duen desberdintzaketagatik (*Ibidem*: 225) bai espazialki, baita sozialki, garai horretan erdi aroan hasitako banaketa sozialaren dinamikak bere horretan jarraitzen baitzuten, auzune honetan baldintza sozial xumeenak zituzten pertsonak pilatzen baitziren.

# SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



## 1.Irudia: Bilboko XVIII. mendeko auzuneak



Txuriz: Bilboko Alde Zaharra.

Berdez: San Franzisko, Gorte, Bilbo Zaharra eta Zabala auzuneak

Horiz: Atxuri auzoa

**Iturria:lanketa propioa Google Maps-etik lortutako iruditik abiatuta.**

Hiriaren benetako aldaketa XIX.mendearen erdialdetik aurrera gertatu zen. Momentu honetan hiria nahiko egoera zail batetik ateratzen ari zen: guda karlista, eta aurretik izandako okupazio ingelesa eta herri altxamenduek, Bilbo munduko komertzio saretik at geratzeari gehituta), hiria gainbeheran utzi zuten (*Ibidem*: 230). Honen harira, hiriaren ekoizpen alorrak modernizatu egin ziren eta lehenengo faktoria modernoak sortzen hasi ziren, horietatik lehenengoa 1841.urtean ezarritako Santa Ana de Bolueta siderurgia izan zelarik. Gaur egungo EAEko lehenengo sozietate anonimoa (*Ibidem*: 231).

Iraultza industrialak Bilbon urbanistikoki erabat eraldatu zuen. Batetik, 1876. Urtean, Bilbok Abandoren zati bat beretzat hartu eta zabalkundearen proiektuari baiezkota eman zitzaion (*Ibidem*: 234). Proiektu hau gauzatzeko egon ziren arazoak alde batera utzita (proiektuari baiezkota eman eta 26 urte geroago, eraiki beharreko eraikinen laurdena bakarrik zeuden bukatuta, inguruan eman zen zoruaren prezioaren espekulazioagatik (*Ibidem*: 235)), Hiriguneko burguesia gune horretan nagusi zen pilaketa eta zikintasuna utzi eta zabalgunera bizitzera joan zen (*Ibidem*: 235). Txanponaren beste aldea Bilbo Zaharra eta San Franzisko eta Gorte inguruan dugu, non langilez betetzen hasi ziren (*Ibidem*: 235). Auzune hauetan, Ibaiaren ezker aldean eraikitzen ari zirenen gehienak bezala (*Ibidem*: 235) baldintza oso kaxkarrak zituzten: eraikinen degradazioa, saneamentu azpiegitura kaxkarrak, eta horrek eragiten dituen hilkortasuna eta gaixotasuna (*Ibidem*: 238). Bestalde, Urazurrutako kaiko zabortegeiak zikintasun arazoak areagotzen zituen (*Ibidem*: 238). Honetaz aparte, hiriarekiko beste muga bat eratu zen. Hiriaren sorkuntzatik zegoen ibaiari Iparraldeko Tren Geltokia gehitu behar zaio, honek auzunearen segregazio eta marginalitatea handitu zituelarik (*Ibidem*: 238-239).

Ikergaia den auzunean gehiago fokalizatuz, interesgarria da garai honetan, XIX.mendeko amaiera partean zer nolako disposizikoa zeukan, urbanistikoki, profesionalki eta baita errentaren inguruan, honen barneko ezberdintasunak antzemateko aukera ematen digulako.

Errenta mailari dagokionez, honako hau zen auzunearen egoera:

SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN:  
 PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA,  
 TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



**1.Koadroa: Eraikinak eta errenta gordinaren balioa Bilboko Bilbo Zaharra, San Franzisko eta Gorte distrituetan 1893.urtean**

Distrituak	Eraikinak	Errenta gordina (Pesetetan)
Bilbo Zaharra	173	264.278
San Franzisko	173	633.544
Gorte	147	332.060

**Iturria: neuk egina José María Beascoechearen lanean oinarrituz.**

Koadroari lehenengo begirada botata, Ikusi daiteke badagoela auzoen arteko desberdintasun bat errenta gordinari dagokionez. Batetik, Bilbo Zaharra eta Gorte auzoak ditugu, zeinek biek Bilbo hiriaren batz besteko errenta baino gutxiago duten (Beascoechea Gangoiti, 2003: zg), eta bestetik San Franzisko auzoa, zeina besteek baino errenta gordin handiagoa duen (*Ibidem*: zg).

Egoera hau gehiago zehazteko, honako koadro hau erabilgarriagoa da:

**2.Koadroa: Errenta gordinen batz besteko balioa etxebizitza indibidualetan Bilbo Zaharra, San Franzisko eta Gorte auzuneetan 1893.urtean**

Distrituak	kaleak	Etxebizitza kopurua	Errenta osotara (pesetetan)	Errenta/etxebizitzak (pesetetan)
Bilbo Zaharra (Etxebizitzak guztira 839)	Cantarranas,Cantarranas goikoa eta Cantarranas S.esteban.	292	44.901	154
	Bilbo Zaharra	220	59.354	270
	Urazurrutia	267	80.738	302
	Zamakola	60	10.759	179
San Franzisko (Etxebizitzak guztira 1257)	San Franzisko	509	226.843	446
	Maiatzaren bia	128	36.189	283
	Hernani eta Bailen	413	186.229	451
	Aretxaga eta Mirasol Kondea	109	47.281	434
	Autonomia	98	26.933	275
	Gorte (Etxebizitzak guztira 503)	Gorte	191	58.655
Gimnasio eta Amparo		87	21.169	243
Zugastinobia, Vistaalegre, Machin eta Abando Plaza		87	18.721	215
Zabala		138	31.037	225

**Iturria: neuk egina José María Beascoechearen lanean oinarrituta.**

# SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



Koadroan ikus daitekeen bezala, aurrekoan agertzen den egoera berdintsuarekin aurkitzen gara. Bilbo Zaharra eta Gorte auzoak Bilbo hiriaren batz bestekoarekin konparatuz, oso errenta maila txikia daukate (*Ibidem*: zg). Dena den, Distrito barruan ere ezberdintasun esanguratsuak aurki daitezke (esaterako Urazurrutia kaleak Zamakola kalearen errenta proportzionalaren ia bikoitza dauka (*Ibidem*: zg))

San franzisko auzoa beste kontu bat da. Kasu honetan ez da beste bi auzuneak bezalako langile gunea. Auzo honetako etxebizitzak besteak baino balio handiagoa zeukaten, baina ezin ziren inguruko merkatal gunetako etxebizitzekin konparatu, izan ere, San Franziskoko etxebizitzak askoz konpartimentatuak zeuden eta etxebizitzak ez zeukaten ospe hobeagoko guneen balorapen bera. Gainera, auzoaren kokapena bera, langile auzoz eta hiriaren gainontzeko gunetaz ibaiaren eta trenbideengatik bananduta egoteak auzoaren egoera kaxkarra areagotzen zuten (*Ibidem*: zg). Azkenik, garaiko auzoetan nagusi ziren ogibideak ikusteak auzuneen egoeraz jabetzea eta azken zertzeladak ematea ahalbidetuko gaitu.

### 3.Koadroa: eliteen, profesionalen eta enplegatuen egoitza Bilbo Zaharra, San Franzisko eta Gorte distrituetan 1893.urtean

Distritua	Eliteak	% (Hiri osoarekiko)	Profesionalak	% (Hiri osoarekiko)	Enplegatuak	% (Hiri osoarekiko)
Bilbo Zaharra	1	1,1	3	0,9	9	3,1
San Franzisko	0	0	18	5,3	40	13,7
Gorte	0	0	2	0,6	4	1,4

Eliteak: Ontzi-jabeak, enpresa eta meatze zuzendariak, diru-trukalariak, bankariak, zalgurdi partikularren jabeak. Profesionalak: Medikuek, arkitektoak eta obra zuzendariak, irakasleak eta perituek, profesional judizialak, merkatal ogibideak. Enplegatuak: saltzaileak, enplegatuak eta administratibo kualifikatuak.

#### Iturria: neuk egina Jose María Beascochearen lanean oinarrituta

Koadroan ikus daitekeen bezala, Bilbo Zaharra eta Gorteko distrituetan nolabaiteko kualifikazioa eskatzen zuten lanposturik zeukaten pertsonarik ia ez zegoen, gunee hauek zeukaten langile izaera azalerazten delarik (*Ibidem*: zg). San Franziskon, aldiz, bestelako egoera bat aurki zitekeen. Distritu honetan burgesia txikiak bazuen oraindik ere txokotxo bat (*Ibidem*: zg), izan ere, profesional eta enplegatuak bazeukaten presentzia esanguratsu bat.

Hemen aipaturiko dinamika eta banaketa sozialak hurrengo urteetan birproduzituraz joango dira, izan ere, une honetatik eta berrogeitamar urtera egoera eta garatutako prozesuak antzekoak izango dira Bilboko Itsasadarraren bestaldean.

Arestian esan bezala, 50-60. Hamarkada bitartean egondako bultzada ekonomikoak XIX. mendeko "meatze iraultzan" gertatutako eskema bera errepikatu zuen (Askunze, 2001: 215) lanpostu baten bila zetozen estatu guztiko etorkinen jarioa, eta hauen kokapena garaiko langile auzoetan, zeinetan lehen haien bizi egoera hobetu zuten pertsonak bizi ziren eta handik alde egin duten, etorkinek hauek utzitako hutsunea beteko dutelarik (*Ibidem*: 215).

50. Hamarkadako San Franzisko auzoan komertzio espezializatuak ziren nagusi, hiri osoan ospe handikoak zirenak, eta Gorte kalean koadrilla jario handia zegoen bertan zeuden cabaret, taberna eta putetxeengatik (2). Putetxeen kasua oso adierazgarria da Bilboko gunee honetan, izan ere, 1938. urtetik aurrera Bilbon erregistratu ziren 52 putetxeetatik 40 San Franzisko inguruan kokatzen dira (Roquero Ussía, 2014: 175). Honek horrelako guneen ikuskapen hobeagoa ahalbidetzen zuen, eta gainera haien sakabanaketa ekiditzean laguntzen zuen (*Ibidem*: 175).



## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA




70. Hamarkadan zehar auzoko lehengo auzo elkarteak sortuko dira, hau da, gizarte zibila antolatzen hasiko da, eta bere auzoaz harro agertuko dira haren baldintzak hobetzearen alde eta euren bizitza auzoak urte luzez jasandako gainbehera eta ezikusi instituzionalaren aurka ekingo diote (Askunze, 2001: 215).

Geroago, 80. Hamarkadan krisi ekonomikoak oso bortizki kolpatuko du hiriaren gune hauetako sektorerik ahulenak, degradazio urbano, ekonomiko eta sozialaren prozesuak azkartuko zirelarik (*Ibidem*: 215-216). Gainera, garai horretan drogaren (batez ere heroina) auzoan izan zuen isurtzea galanta gertatu zen, batez ere Gorteko tabernetan. Honegatik, eta prostituzioaren negozioaren gainbeherarekin batera, klan familiarrak drogaren banaketan zentratuko dira inguruko etxebizitzak okupatuz, eta hauek literalki suntsituz (*Ibidem*: 216). Honek gainontzeko auzokideen alde egitea eragin zuen. Bestalde, eta egoera hau are gehiago larrituz, 1983. Urteko abuztuko uholdeengatik haien biziguneetatik kanporatuak izan zen biztanleria ibiltari eta txabolistaren auzune hauetara izan zuen etorrera eremuaren degradazioan sakondu zuen (*Ibidem*: 216).

Hau guztiagatik, sozialki egoera onenean zeuden biztanleria auzotik alde egin zuen, edo behintzat aisi eta harremanak hiriaren beste guneetan bilatzeari ekin zioten, Haiek utzitako tokia kaudimen ekonomiko txikiagoa zeukaten pertsonak okupatu zutelarik (*Ibidem*: 216). Dinamika hauek gaur egunerarte diraute, Hiriaren eremu hau ez baitzuen Bilboko beste hainbat guneetan 90. Hamarkadan eman zen “garapen berriaren” izpirik dastatu, garai horretatik instituzioen utzikeria jasan behar izan duelarik (*Ibidem*: 216).

Gaur egungo egoerari buruzko daturik eguneratuenak 2011.urtekoak dira. Bilbo Zenbatekoetan txostenekoak. Txosten honetan bilboko gizarte egituraren hhainbat aspektu kuantifikatu egiten dira, populazioa esaterako, zeina populazio piramide batean erakutsi daitekeen:

**1.grafikoa: San Franzisko, Bilbo zaharra eta Zabala auzuneetako 2011.urteko biztanleria piramidea.**



**Iturria: lanketa propioa Bilbo Zenbatekotan webguneko datuetan oinarrituta.**

# SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



Grafiko honetatik atera daitekeen ondoriorik garrantzitsuena auzune hauek erlatiboki gazteak direla da, izan ere, 30 urte baino gutxiago duten pertsonen biztanleria guztiarekiko portzentaia %29,45koa baita.

Bestalde, auzoen populazio dentsitatea honako hau da:

#### 4.Koadroa: Bilbo Zaharra, San Franzisko Zabalako eta Bilboko populazioa, auzo eta hiriaren azalera eta biztanleria dentsitatea 2011. urtean

	Populazioa	Azalera (km <sup>2</sup> tan) eta Bilboko azalerarekiko %	Dentsitatea (Populazioa/azalera)
Bilbo Zaharra	3701	0,14km <sup>2</sup> (%0,344)	26436
San Franzisko	7508	0,17km <sup>2</sup> (%0,418)	44165
Zabala	5165	0,12km <sup>2</sup> (%0,295)	43042
Bilbo Hiria	353256	40,64km <sup>2</sup> (%100)	8692

**Iturria: Lanketa propio Bilbo Zenbatekotan webguneko datuetan oinarrituta.**

Koadro honetan ikus daitekeen bezala, auzo hauetako populazio dentsitatea oso handia da, historikoki izan duen joerarekin bat egiten duelarik. Bilbo hiriaren oso zati txikia barnebiltzen dute, baina populazio handikoak dira haien azalerarekin alderatuz. San Franzisko eta Zabala auzoak Bilboko 3. eta 4. auzorik dentsoenak ziren biztanleriaren ikuspegitik (Bilbo zenbatekotan, 2016.ko apirilaren 15ean kontsultatua)

Inmigrazioari dagokionez, Bilbo Zaharra, San Franzisko eta Zabala auzoen atzerrian jaiotakoen populazioaren portzentaia %23,48, %36,33 eta %19,22 dira hurrenez hurren. Bestalde, hiru auzoetan kolektibo garrantzitsuenak Hegoamerikan jaiotakoak ( atzerrian jaiotakoen %33,94, %37,8 eta %46,92a hurrenez hurren) eta Afrikan jaiotakoak dira (atzerrian jaiotakoen %47,75, %45,26 eta %30,51a hurrenez hurren).

## ESPAZIOA: SARRERA BAT

Espazioa da hain zuzen ere gure ekintzak, pentsamenduak kokatu eta eratzten dituen egitura fisikoa, baina mentala ere. Gure bizipenak, pentsamenduak, sentazioak, emozioak... ezin dira ulertu hauen testuinguratze bat gabe, hau da, hauek leku batean marraztu gabe. Horixe da espazioaren garrantzia zientzia sozialetan oro har, eta horregatik izan da hain landua, soziologiagatik besteak beste.

Espazioaren gizarte zientzietan hurbilpen bat egiteko Doreen Massey-k honen inguruko hiru proposizio (Massey, 1999) iradokitzen ditu:

1. Espazioa harremanen emaitza da (*Ibidem*: 104). Interakzioen bidez gorpuzten da, leku neurtezinetatik nimitzotara (*Ibidem*: 104).
2. Espazioa harremanen bidez bere horretan eratzten dela ulertzen bada, horrek esan nahi du harreman horiek anitzak eta norabide askotarikoak direla (*Ibidem*: 105). Beraz, espazioaren baldintzetako bat harreman ezberdin eta anitzen egikaritzea da (*Ibidem*: 105).



3. Espazioa harreman horien emaitza denez gero, sortzen duteneremu materialarekin elkarbizi diren harreman horiek *burutu* egiten dira (*Ibidem*: 105), Gainerak, harreman hauek izaera kontingentea dute, inoiz ez adiera amaitu edo itxia (*Ibidem*: 105).

Botatako espazioa aztertzeko hiru pauta hauekin jarraiki, honela garatzen ditu ideia hauek:

- Espazioa harremanen bidez sortzen baldin bada, espazioa ere identitateen sorkuntzan faktore integral bat bihurtzen da (*Ibidem*: 106). Hau, noski, ez da identitateen determinazioa baldintzatzen duen aldagai bakarra, baina bai da ekidin ezinezko faktore (*Ibidem*: 107)
- Espazioak harreman aniztasun bat aurreikusten baldin badu, orduan identitate anitzen sortzaile ere bihurtzen da (*Ibidem*: 107). Gainera, espazioen definizio bat burutu ahal izateko, beste batekiko alderaketa ezinbestekoa, norberaren espazioaz jabetzeko (*Ibidem*: 107), esaterako, munduaren ikuskera zehatz bat sortzen duen gizon heterosexual eta zuriaren ideologia. (*Ibidem*: 107).
- Azkenik, espazioa etengabeko sorkuntzan eta eraldaketan dagoen zerbait bezala hartzeak badu etorkizunera begira izugarritzko aukera sorta (*Ibidem*: 108) dakar. Horrek subjekturik gabeko estrukturalismo baten eta zenbait marxismo izozturen teorizazioen aurka jotzen du (*Ibidem*: 108), etorkizunerako zabalkunde erradikal bat aldarrikatuz (*Ibidem*: 108).

Espazioarekin gertatzen diren harremanetaz aparte, denbora ere ezartzen du beste aldagai bat bezala. Harreman eta identitate horien sorkuntzarako ezin dira espazio zehatz batean soilik eman. Denbora koordenadaren garrantzia ezinbestekoa da harreman horien gauzatzea azaldu eta aztertzeko (*Ibidem*: 113).

Dena den, lehen azaldutako harreman guzti horiek badute espazialitatean halako produkzio bat (masseyk 4 proposizio bezala izendatzen duena) (*Ibidem*: 121), errelato, bizipen eta identitate horien batuketa horrek espazioan eragin bat dute eta eraldatu egiten dute, transformazio honek subjektibitate berrien sorkuntza bultzatuko duelarik (*Ibidem*: 121).

Sarreratxo hau espazioaren ikuspegi soziologiko eta relazional iradokitzeko txertatu dut ondoren datozen kontzeptuak hobeto uler daitezen. Horretarako uste dut garrantzizkoa dela espazioaren inguruko ikuspegi aseptiko eta objektibo bat baztertzea beharrezkoa dela. Horregatik espazioa eta denbora subjektibitateen sorkuntzan eta baita ere botere harremanen garapenarekin elkartzea bereziko iruditzen zait.

## KONTZEPTUA: HETEROTOPIA

Hiriaren gune hau deskribatu, eta zientzia sozialetan espazioaren inguruan egiten den hurbilpen teorikoa burutu eta gero, uste dut garrantzitsua litzatekeela honi atxiki dakioken kontzeptu analitiko batekin alderatzea, horrela gunearen, haren funtzioaren eta gainontzeko tokiekiko duen erlazioa ulertzeko, eta kontzeptu hori heterotopia da. Lehendabizi kontzeptu hau modu zehatzugabe batean deskribatuko dut, eta ondoren, beste gai batzuk landu eta gero, hau auzunean determinatzeari ekingo diot.

Kontzeptuu hau Michel Foucaultek aipatu zuen 1967. Urteko martxoaren 14ean Ikasketa arkitektonikoen zirkuluan (Foucault, 1999 : 15). Bertan filosofo frantsesak Heterotopiak definitzeko asmoarekin utopiekin konparatzen ditu, Bere esanetan, utopiak kokagune errealik



gabeko tokiak direla dio. Gizartearen perfekzionamendu edo horren kontrakoa izan daitezkenak, baina dena dela, ez direnak (*Ibidem*: 18-19). Heterotopiak, ordea, aurkigarriak dira, eta hauek gainontzeko gune errealak ordezkatu, erantzun eta hankaz gora jartzen dituzte (*Ibidem*: 19). Berak ispiluaren adibidea jartzen du. Ispilua egon badago eta norberaren islaren bidez subjektuari erantzun bat gortzen dio, bere burua errepresentatuz (*Ibidem*: 19), baina aldi berean ez dago, isla egoteko leku konkretu batetik igarotzearen beharra daukalako (*Ibidem*: 19).

Ondoren, heterotopia primitiboen eta gaur eguneko arteko ezberdintzapen bat egiten du. Lehenengo kasuan “krisi” heterotopiak leudeke. Hauetan, gune sakratu, debekatu edo pribilegiadunak, krisian leudekeen pertsonak biziko liratezke, hala nola, nerabeak, hilekodun eta erditzekotan dauden emakumeak, zaharrak... (*Ibidem*: 20).

Gaur egun leku horiek ia desagertu egin dira, baina oraindik ere badiraute modu xume bateago batean, izan ere, oraindik erritual traszendentalak burutzen diren guneak nahiz eta ez egon, hauek orain dela gutxirarte ematen ziren (zerbitzu militarra, ezkontza bidaian emakumearen birgintasunaren galera...) baina ez ziren “inon” ematen (*Ibidem*: 20).

Gaur egun existitzen diren heterotopiekin sartzerakoan, Foucault-ek hainbat printzipio, adibide eta irizpide botatzen ditu:

- Desbiderapen heterotopiak: bertan portaera dibergente edo ez normatibo bat duten pertsonak pilatzen dira, atsedean etxeak edo ospital psikiatrikoak, eta espetxeak esaterako. Zahartzaroa ere krisi garai bezala kalifikatzen du Foucault-ek, baina baita ere desbiderapen aro bat, “aisia (ocio) araua den, eta alferkeria (ociosidad) desbiderapen bezala duen” gizarte batean (*Ibidem*: 20).
- Giza talde batek heterotopien funtzioa alda dezake, edo hauek desagerrarazi. Adibide bezala hilerria jartzen du: XVIII. Mendearen amaierararte hilerriak hirien erdigunean kokatzen ziren, eta bertan hildakoen arteko hierarkia bat mantentzen zen: Batzuk estatuadun mausoleoetan ehorzten ziren, eta beste batzuk marka xume batzuk zeuzkaten losa batzuen azpian. Erabilera hau XIX. mendean zehar aldatuz joan zen, arimari garrantzia eman beharrean, gorpua berari ematen hasi baizitzaion. Gainera, heriotzaren eta gorpuen indibidualizazio prozesu bat hasi zen, non bakoitzak bere “usteltze txiki pertsonalerako kutxa izateko eskubidea lortu duen (*Ibidem*: 21)”. Bestalde, heriotza gaixotasunarekin lotzen hasten da eta honegatik hilerriak hirien garaiko periferietara bideratzen hasi ziren, “ “beste hiri” bat sortuz, non familia bakoitzak bere egoitza beltza duen (*Ibidem*: 22)”.
- Heterotopiak toki bakar batean espazio anitz eta bateraezinak batzeko boterea dauka. Horien adibideak antzerkia edo zinea liratezke, baina antzinakoena lorategia litzateke, non bertan kosmos osoa erreproduzitzen zen, eta horren imitazio diren alfonbrak. Foucaulten hitzetan, “Lorategia munduko partzelarik txikiena da eta ondoren munduaren osotasuna da. Lorategia, antzinaroaren hondotik, halako heterotopia zoriontsu eta unibersalizatzailea da (*Ibidem*: 22)”.
- Heterotopiak, aldikotasun gehiago edo gutxiagorekin denbora mozketekin erlazionatuta daude, zeinetan denbora tradizionalarekin apurtu egiten den. Adibide bezala museo eta liburutegiak aipatzen ditu, non denbora ez du inoiz pilatzeari uzten (*Ibidem*: 23). Dena den, bi hauek modernitatean kokatutako heterotopiak direla dio,



izan ere, denbora guztiakin eraturako denboraren kanpoko leku bat sortzeak, haren haginkadetatik egongo dena, eta kontserbazio perpetuo bat ahalbidetuko duena, gure modernitateari dagokion ideia bat da (*Ibidem*: 23). Bestalde, badaude betiereko heterotopiak ez direnak, baizik eta heterotopia kronikoak, esaterako, azokak, zeinak urtean behin edo birritan pertsonai bitxiez betetzen dituzten hirien marjinak, edo opor aldeak, zeinetan hiriko biztanleei exotismodun itxurazko eternitate bat eskaintzen zaien (*Ibidem*: 23).

- Heterotopiak zabalera eta itxiera mekanismodun espazioak dira, zeinak batzutan isolatu eta beste batzutan sargarri bihurtzen diren. Hauetan ez da bat batean sartzen, izan ere, erritu garbitzaile batzuk jarraitu behar dira (musulmanen *hammam*-a, edo saunak esaterako), edo koertzioz sartzen da (koartela kasu) (*Ibidem*: 24). Hala ere, badaude beste batzuk zeinetan haien bihotza erabat ezkutatuta dagoen eta bertara soilik kanpoko azal batean aurkitzen garen. Sartzerik badago, bai, baina ilusio bat besterik ez da. Are gehiago, sartzearekin batera haratago joatea galarazten da (*Ibidem*: 24). Gaur egun horrelako guneak AEBetako moteletan aurki daitezkeela dio Foucault-ek, zeinetan amorantearekin kotxez heltzen (modu publiko batean) den baina sexualitate ilegala erabat babestua, ezkutatua eta gordeta aurkitzen den (*Ibidem*: 24).
- Azkenik, esatea heterotopiak badutela gainontzeko espazioarekin alderatuz, funtzio bat. Eta hemen frantsesak bi poloetan banatzen ditu (*Ibidem*: 24).
  - Batetik, ilusiozko espazio bat sortzea, zeinaren bitartez gainontzeko espazioak ilusorioago bezala salatzen dituen (putetxeak kasurako) (*Ibidem*. 24-25).
  - Bestetik, hain perfektua, hain zehatza, hain apaindua den espazioa sortzea, zeinak gainontzeko espazioak nahasi eta gaizki antolatu bezala uzten dituen (zenbait kolonietan sortutako komunitate puritanoak adibidez) (*Ibidem*: 25).

Heterotopia kontzeptuaren deskripzio soila egin eta gero, hau San Franzisko eta Bilbo Zaharrako guneetan nola txerta daitekeen ikusi beharra dago, baina lehenago, gune hauetan ematen ari diren beste hainbat prozesu eta dinamika aztertu beharra dago, hauek gune honetan ematen ari diren eraldaketa, kontrol eta subordinazioen berri emango dutelako, eta horrela arestian azaldutako heterotopiaren kontzeptu zabal eta lausoa fisikoki kokatzeko aukera emango dutelako.

## MEKANISMOAK: KONTROLA, KAMARAK, POLIZIA

Une honetara helduta, bada garaia ikergaia bera aurkeztu dezadan, izan ere, Kontrolaren inguruan hitz egin baino lehen testuinguratu beharra dago.

San Franzisko kalean eta honen inguruan ipinitako kameraren instalazioa Telecom eta Novatecno enpresek burutu zituzten, Bilboko udalak esleitutako kontratuaren arabera, honek 100.782 euroko zenbatekoarekin. Kontratua 19 kameraren instalazioan datza (El Correo 2008/10/17).

Hauek 2009.urteko martxoan zehar jarriko ziren, eta apirilean hasiko ziren funtzionatzen. Kamera hauek (berri honetan 18 aipatzen ditu eta ez 19) 14 puntu ezberdinetan kokatuko ziren, eta horietako lau bi aparatua izango litzuzke, San Francisco, Bailen, Arnotegi, Cantera,

## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



Maiatzak 2, Laguna, Cantalojas, Hernani, Mirasol Kondea, Aretxaga, Hiru pilareen plaza y Mariaren Bihotza kaleak ikuskatzeko. Neurri honen alde merkatarien elkarteak agertzen da. Garaiko elkartearen presidentearen esanetan, Manuel Herrero, “ Horren alde agertu ziren lehenengo momentutik (kameren instalazioaren inguruan)”. Gainera, baita ere dio kamerek lasaiago sentiaraziko dituela merkatari eta auzokideak. Azkenik, honako hau gehitzen du: “Baliteke kamerek auzoaren arazoak ez konpontzea, baina merkatariak segurtasun handiagoarekin sentituko gara, eta auzokideak baita ere”. Bestalde, badaude beste kolektibo batzuk ez dutenak neurri hau begi onez ikusten, San Franzisko, Bilbo Zaharra eta Zabalako taldeen koordinadora esaterako. Kolektibo honen aburuz, bideobigilantzia sistemak “gure auzoak gueto bezala kalifikatzen dituen imaginario sozialaren mesedetan arituko da”. Gainera, kamerena “modan dagoela”, baina horrek ez duela delituen aurka egiten, eta irudiak beste zerbaitearako erabili daitezkeela azpimarratzen dute “edozein unetan”. Azkenik, “delitua errotik erasotzen ez bada, berdin duela 100.000 kamera jarri edo ez, gauzak bere horretan jarraituko dutela” diote (El Correo 2009/02/07).

Bestalde, kameren funtzionamendua azaldu beharra dago, edo behintzat argitaratu den informazioa zehaztea. El Correo egunkariak 2009ko Irailaren 30ean argitaratutako “18 cámaras tejen una malla de vigilancia en San Francisco” artikuluan, kameren eta hauek hartutako irudien kudeaketaren inguruan aritzen du. Artikulu honek dio guztira 18 kamera instalatu zirela, batzuk lente bikoitzarekin, beraz guztira 35 lente dutela ondorioztatzen du. Hauek hartutako irudien kalitateak pertsonak edo objektuak 25-30 metrotara bereiztea ahalbidetzen du. Gainera, irudiak 400 alditan handitu daitezke irudiaren garbitasunik galdu gabe. Bestalde, kamera guztiak angulo zurrinak dituzte (ezin dira haien ikusmirak aldatu), horrela komertzioak ikusiko ez dituztela argudiatzen duelarik. Honetaz aparte, “ikusitako nahi ez diren guneak” pixelatu egingo dira. Azkenik esan beharra dago kamerek ez dutela ez grabazio ez soinu dispositiborik. Kameren kokapenak San Franzisko kalean zehar dabilen pertsona baten ikuskapena ahalbidetzen du, kalearen punta batetik bestera, inolako etenik gabe.

Kudeaketari dagokionez, hartutako irudiak enkriptatuta bidaltzen dira zifratu tekniken bidez zuntz optiko bidez. Gainera, azterna digitaleko sistema bat daukate, honek guztiak haien galera edo manipulazioa galarazten duelarik. Berria idatzitako momentuan Bilboko udaltzainek bakarrik zeukaten irudiak aztertzeko eskubidea, erabiltzaile eta pasahitz baten bidez balidatuz gero. Kamerek hartutako irudiak 48 pulgadetako telebista batean ikus daitezke denbora errealean, eta kameraren bateko irudia handiago ikusi nahi izatekotan, hau 17 pulgadetako beste telebista batean bisionatu daiteke. Kontrol gelan beti dago zerbitzu buru bat kamerek bidalitako irudiak ikusteko.

Irudiak 7 egunez biltzen dira Bilboko udaltzainaren Datuen Prozesamendu Egoitzan, eta denbora horretan justizia auzitegi, Ararteko edo beste polizia bidaltzeko aukera dute. Epe horretatik aurrera automatikoki ezabatzen dira. Arestian zehaztu dutan moduan, berria idatzitako unean Bilboko udaltzainek bakarrik ikuskatu zituzketen irudiak, baina berri honen arabera garai horretan Ertzaintzarekin irudiak partekatuzko tramiteak hasiak ziren, eta azaroaren hasierareko gorputz polizial honek San Franzisko kaleko irudiak ikuskatu ahal izango ditu Deustuko komisaldegitik.

San Franziskoko auzoan instalatu ziren kamerek, eta gaur egun bertan dirautenak, kalea den espazioaren “publikotasuna” apurtu egiten du, eta estatuak begi elektronikoko hauen bitartez gorputzen da disziplinatuta beharreko portaeren gainean eskuhartuz. Kontraesan

# SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



honetatik, zeinetan kanpoko ente batek espazioa arautzen duen, “kalearen demokrazia” garatzen hasten da (Contrahistoria 2013:62).

Espazioaren kontrol hau bere horretan modernitatean garatu den gune errepresiboan eman ziren lehenengo aldiz, Hau Bentham-en panoptikoa delarik. Jeremy Bentham ingelesak XVIII. Mendean garatu zuen ikuskaritza eta kontrol sistema hau, errepresioa presoan zuzenketarako sistemarik honena zelaren ustetan. Egitura arkitektoniko hau eraztun batean zetzan, eta honen erdian dorre batean, zeinetatik eraztunean txertatua dauden ziegak ikusteko aukera dagoen (*Ibidem*: 63). Pertsonaren portaeraren zuzenketa hori ordea, ez da bilatzen ikuskaritza etengabe baten bidez, baizik eta eraikinaren erdian dagoen dorretzar horrek bere gain ezartzen zaion oroikuslearen paperagatik. Berdin du panoptikoa norbait dagoen edo ez. Kontua da egitura arkitektonikoa bertan darraielara, eta haren begi posible eta betierekoa da presoaren portaera disziplinatzen duena. Etengabe ikusia izatearen sentsazioa da gakoa (*Ibidem*: 63). Benthamek arkitektura errepresibo honen hedapenaren alde agertu zen, eta lan guneetan unibertsitateetan... ezartzea gomendatu zuen (*Ibidem*: 63).

## 2.Irudia: Bentham-en panoptikoa espetxe batean



Iturria: Google.es

Benthamek iradokitako ildotik, XX. Mendeko Foucault filosofoak gizarte disziplinarioak mekanismo hau nola hedatu den eta errepresiorako aukerak nola handitu diren aztertzen du (*Ibidem*: 63). Bere esanetan, kontrol mekanismo hauek gizarte modernoaren ezaugarri bat dira eta gizabanakoaren men egitea besterik ez du bilatzen, etengabe, bizitzaren alor guztietan ikusia izatearen eta ikuskatua izatearen ezinegon eta beldurra baita gure portaera, jarrera, pentsamendu eta sentimenduak baldintzatu eta bortizki aldarazten dituenak (*Ibidem*: 63). Dena den, errepresio hau zentzu positibo batean ulertu beharra dago, izan ere bere muina ez da besterik gabe subjektibitate batzuen ekintzak zapuztea, baizik eta horiek beste batzuegatik ordezkatzeari. Bizitzeko, ekiteko, lan egiteko, aisia egiteko...modu zehatz batzuk txertatzea. Honi “bizitza egitea”, biopolitika deitzen zaio (Ruiz Chasco, 2014: 307-308).

Foucaultek aztertutako disziplinaren gizartetik jauzi kualitatibo handia eman da, eta nahiz eta dispositibo errepresiboak bertan dirauten, hauen izaera ezberdina da. 80. Hamarkadatik aurrera Deleuzek kontrol gizarteak deituko dituenak garatzen hasten dira. Hauen muina subjektibitate eta gorputzen kontrolerako informazio eta komunikazioaren teknologiak erabiltzean datza. Dispositibo hauen ahalmena ikuskaritza zentro batetik bigilantzia guztia garatzea da. Gainera, begirada errepresiboa somatzen ez denez hau nonahiko bihurtzen da (*Ibidem*: 308).

Lehen esan bezala, kontrolaren gizartearen mekanismo errepresibo berrien artean teknologia berriak sar genitzake: kreditu eta debito txartelen hedapen masiboa, gure historial

## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



medikoa daramaten txartel medikoak, mikrofonoak daramatzaten edo GPS bitartez topatu daitezkeen telefono mugikorak, eta noski, bideokamarak (*Ibidem*: 309).

Dispositibo arimagabeetatik aparte, espazioaren kontrolerako oraindik ere pertsonak erabiltzen dira. Hauek bigilantziaren diskurtsoa eta praktika barneratua daukaten bertako pertsonak izan daitezke (Garcia & Cantos, 2016: 203), edo baita ere kanpoko instituzio errepresibo baten zerbitzura eta honen ordezkari diren pertsonak, poliziak alegia.

Polizia kontrolerako agente bat bezala ulertu beharra dago, eta ikuskatutako pertsonen bizimodua menderatzeko gai den heinean, mekanismo biopolitiko bihurtzen da (Neucleous 2016: 4). Nahiz eta tradizionalki polizia, armadarekin batera koertzio eta pazifikazioarekin (termino hau espazio baten sistema ekonomiko, politiko eta sozial baterako egokitzapen bortitza bezala ulertuta (*Ibidem*: 4) lotuta egon den, haren kutsu militarra gailenduz, poliziak gaur egun beste nolabaiteko eginkizunak bere gain hartzen hasi da, esaterako laguntzaile sozialarena esaterako (Cantos & Garcia, 2015: 84). Bi rol hauek gero eta hein handiago batean bat izateko ildoak daramate. Horrela, poliziak bere bortxazko rol tradizionala alde batera utziz eta kutsu paternalista bat praktikara eramanez, hirietako gune pauperizatuak pertsonen bizitza, kontaktu, bizipenetan modu eragingorrago batean sar daitezke, kontrola eta errepresioa kirurgikoagoak bihurtuz (*Ibidem*: 86).

Izan ere, erregimen neoliberaletako politika publikoa ez du ezberdintasun sozialen desagerpena helburutzat, baizik eta ezberdintasun horien kudeaketa, hauek desira eta lehiakortasunerako bitarteko baitira (*Ibidem*: 88). Horregatik, polizia neoliberalak haien ekintzak arrisku subjektiboen (riesgo) arabera burutzen ditu. Ez dute oinarritzat burutzen diren delituak edo faltak gune zehatz batean atxilotuta edo inkautazio bat egiteko, baizik eta goitik, instituzioetatik ezarritako irizpide batzuen arabera (*Ibidem*: 89), gero performatiboki lekuan bertan birsortzen direnak (*Ibidem*: 102). Esaterako, leku zehatz batean poliziaren ekintza operatibo zabal bat (droga bila, edo antolakunde kriminal bat desegiteko) burutzean, auzokoek bertan zerbait txarra burutzen ari dela usteko dute, eta hori hirian zehar zabaltzen bada, eta horrelako ekintzak era masibo batean burutzen hasten badira, auzo horren irudi zehatz bat sortuko da: leku arriskutsua, perfil zehatz bateko jendez beteta (toxikomanoak, lapurrak, putak...). Hori poliziari hortik maizago igarotzearen ondorioa ekarriko du, “auzoaren segurtasuna bermatzearren”. Horrek aurretik ezarritako irudia baieztatu besterik ez du egiten, eta horrek leku horren polizializazio bat ekartzen du. Leku jakin bat, ekintza poliziak soil batengatik poliziak eta teknologia sekuritarioek hartutako espazio bat bihurtu daiteke. Dena den, hau guztia ez da hala nola egiten. Ekintza polizial bakoitzak bere helburua du. Redada bat egiteko era asko daude: furgon polizial asko eta hormara begira dauden atxilotutako pertsonak dauzkatenak (*Ibidem*: 179), eta aldiz modu ikustezin eta ezkutu batean burutzen direnak. Lehenek gune horretan salbuezpeneke egoera bat eratzen dute, eta besteak ezkutuan burutzen dira gaitzeztuak izango liratezkeelako gainontzeko pertsonengatik, pertsona jakin batzuei soilik eragiten dielako izango ez balitz (atzerritar arrazializatuak) (*Ibidem*: 180).

Hau guztiarekin ondorio batzuk atera daitezke poliziaren ekintzen inguruan. Batetik, poliziak eta bere gain dauden instituzioen hiriaren eta espazioen mapa ekonomiko bat burutzen dutela, eta horren arabera ekintza batzuk edo beste, leku bakoitza modu zehatz batean sekurizatu... erabakitzen da. Zein lekutan operatibo ikusgarriak burutuz horrekin mezu bat zabaldu eta inguruan egoera eta sentipen batzuk sortzeko, zein leku zaindu kapital sortzaile direlako, non burutu identifikazio eta atxilotuta kriminalizatuak eta zergatik... Azkenean finean poliziak, beste hainbat dispositibo sekuritario eta kontrolezko bezala, hiriaren





bizitza baldintzatu eta egituratzeko abilezia eta helburua dauka. Arestian esan bezala, beste dispositibo biopolitiko bat da (Neocleous, 2016: 4).

Aztergai den gune zehatz horretan ere espazioen ezberdintzapen bat ere ematen da kale bakoitzari ematen zaion erabileragatik. Orain ikusi dugun bezala, zenbaitetan kontrol mekanismoak dira nagusi, bertan gertatutakoa arriskutsu edo susmagarri bezala agertzen delako udaleko eta instituzio polizialei, baina beste batzuk beste erabilera bat hartzen dute bere gain, ustiapen ekonomikorako duten baliogarritasunagatik.

## PROZESUA: GENTRIFIKAZIOA

Hirietako auzo zentrikoak, garai batean gune langileak izandakoak, modazko gune bihurtzea eta askoz eskuratze ahalmen handiagoko pertsonen bertaratzea, bertako jatorrizko biztanleen kanporaketarekin deitzen zaio gentrifikazioa (Contraistoria 2013:60).

Prozesu honen lehenengo pausuak 60. eta 70. Hamarkadetan koka daiteke. Auzo honetan inbertsio defizit handia egon ohi da, eta horrek gune horien uztea eta lurraren devaluazioa eragiten du. Horrela, hauek oso merke erosi egiten dira eta berriztatu egiten da interes turistikoa eta kulturalaren izenean. Honek auzoa pertsona dirudunentzako ondare bihurtzea dakar (hauek bilakatzen dira auzune hauen jabe), merkataritza eta instalazio eredu bat eramanez auzo horietara, bertako populazioa zokoratuz, honen alde egitea eraginez (*Ibidem*: 60).

Ohikoena izan ohi da agente "gentrifikatzaileak" artistak, diseinatzaileak eta horiek bezalako ogibide kreatiboak izan ohi dira, hauei behin behineko espazio komertzialak oso baldintza onuragarrietan usten zaizkielarik. Auzo klase honi eskaintzen zaio (Sequera, 2010: 125). Gune degradatu, zaharkitu eta ahaztu hauek kapitalak erakarri eta merkantilizatu ahal izateko lehendabizi irizpide guzti hauekiko birmoldaketa eta berriztatze bat eman behar da, prozesu hauetan kudeatzaile urbano, promotore, jabe, enpresario eta kultura eta hezkuntza instituzioen interesak barnebiltzen direlarik. (*Ibidem*: 125). Berriztapen lanetan aritutako pertsona hauek euren eginkizuna bete eta gero, alderatu eta kanporatu egiten dira, New York-eko Lower East Siden gertatu zen bezala (*Ibidem*: 125).

Azkenean, Gune urbano hauek kontsumorako, hau da, merkatuentzako funtzional zaizkion eginkizun batzuetarako bideratuta geratzen dira. Museoak, antzerkiak, tabernak, liburu dendak, bidezko merkataritzazko dendak... bihurtzen dira nagusi, denak kontsumo kulturalista eta sasi-kreatibo baten lelopean (*Ibidem*: 126).

Prozesu hau ikerketa honi dagokion espazioan ikusteko aukeratutako materiala 2012. urtean argitaratutako *Sobre/Mesa* dokumentala erabili dut. Honetan Bilbo Zaharrean oso ospe handia zuen taberna baten itxiera eta haren jabearen erretiratzea aitzakitza hartuta, auzunearen historia, gizarte problematikak eta auzoaren gaur egungo egoerari zertzelada batzuk ematen saiatzen da. Horien artean bertan ematen ari den gentrifikazio prozesua aztergai du, horren inguruan auzo koordinadoraren partaide bati, auzokoei eta pertsona gentrifikatzaileei (haien denda edo espazio komertziala zabaldu zutenak, ez prozesu urbanistiko espekulatzailearen atzean dabilzaten instituzioak eta enpresak) galdetzen die eta haien ikuspuntu eta iritziak jasotzen ditu.

SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN:  
PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA,  
TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



Dokumental honetan lehendabizi koordinadoraren kide batek San Franzisko eta Bilbo Zaharra inguruetan gentrifikazio prozesu bat martxan dela baieztatzen du:

*En muchos casos lo que han sufrido esos barrios es una transformación, pero no una rehabilitación. Lo que han sufrido es, pues eso que los sociólogos urbanos definen como gentrificación, que es una especie de recambio de las personas que vivían en el barrio por otro tipo de personas pues que acceden a un espacio pues con ese tinte de bohemia, de cultura y tal. (Karlos, San Franziskoko talde koordinadoraren kidea)*

Bestalde, auzokideen iritziak ere jasotzen ditu. Hauek gune gentrifikatzaileen kokapena zehazten dute, eta udalak komertzio alternatiboen bultzadan duen papera azpimarratzen du. Dena den udalak prozesu honetan gauzak “txarto” egiten ari dela diote (ez duela modu eraginkor batean gentrifikatzen laguntzen) Honi guztiari gehituz, zenbait auzokide prozesu itxuraz neutral honen atzean dauden interesak eta botere harremanak ere antzeman ditzazkete.

*Lo que se quiere hacer en este barrio es claro. Quieren hacer un barrio “Underground”, un barrio alternativo. Está clarísimo, vamos, es que lo están gritando. Lo que pasa es que lo están haciendo muy mal, porque están intentando que venga la gente, que se establezca la gente, con el nuevo comercio, con el nuevo sistema, los nuevos formatos sin limpiar la zona. Entonces la gente se cansa, se quema y se va. (Mertxe, Gorte kaleko merkataria).*

(...)

*Necesitamos gente que venga. Ha venido mucha gente al barrio pero ha venido a las calles de bajada hacia la ría. No han llegado hasta San Francisco y eso se nota mucho. Si de las tiendas que hay en Hernani y en 2 de Mayo hubieran ocupado San Francisco... (Tito, Neviten Kolektiboa.)*

(...)

*Pero también entendemos que hay otra gente que ha venido y que ha compatibilizado la idea de desarrollar un negocio y tal con una implicación importante en el impulso del desarrollo de la zona. (Karlos, San Franziskoko talde koordinadoraren kidea)*

Aldaketa urbanistiko honetan udalaren paperaren inguruan ere hitzegiten da. Partaide baten esanetan, Udalak gentrifikazio prozesua lehendik bertan bazegoen artisten sustrato batengatik abiatuta atera du aurrera, bazeukan irudi hori esplotatuz:

*El ayuntamiento aprovecha también corrientes que ya existen no? O sea de alguna manera está bien que lo haga así. La presencia de artistas, bohemia y tal y cual ya estaba aquí en este barrio. (Bada, DK muralismo)*

Agente gentrifikatzaileak ere elkarrizketatzen dira, haien ikuspuntua jasoz. Hauek auzokideen udalaren paper gentrifikatzailearen inguruko ikuspuntua partekatzen dute modu batean, hauek noski euren enpresari autonomoaren prismatik, baina baita ere auzoan izan dezaketen rol aktiboaren ikusmiratik.

*Nos guiamos por el programa Lan Ekintza de promoción de empleo y de instalación de empresas en el barrio. (Javi, Anti Liburudenda)*

(...)

## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



*Supuestamente tu tienes que cumplir 5 años de actividad para o devolver las ayudas para hacer una rehabilitación tan chula como la de Garabat. De acuerdo, pero es que aquí la gente no aguanta 5 años. (Borja, Galería Garabat)*

(...)

*Es un esfuerzo muy importante por que se instalen nuevas empresas culturales, se han instalado aprovechando el dinero que el ayuntamiento ha dado para rehabilitación de locales y cosas así, pero no ven un futuro más allá, con lo cual se acabaran yendo. (Borja, Galería Garabat)*

(...)

*Intentábamos promover un poco la vida cultural en nuestra calle y en nuestro barrio porque creíamos que era la mejor manera de potenciar no solo nuestra actividad comercial sino la regeneración del barrio. (Borja, Galería Garabat)*

(...)

*Esta calle no es una calle comercial todavía. Es cuestión de tiempo y de que cada uno consolide su propio negocio. (Alfredo, Taller de Soho)*

Dokumental honetatik hainbat ondorio atera daitezke. Bat litzateke garai horretan, orain dela 6 urte gune hartan ezarritako komertzio, galeriak, liburutegiak... gentrifikazio prozesuetan ohikoetan egoten den abangoardiaren parte direla da. Artista eta bohemiaz beteriko giroak sortzen dituztenak eta horrela auzoaren parte batzuk (ibaiadarrera doazenak) balorizatu egiten dira eta haien errentabilitatea igotzen da. Hori gentrifikazioaren lehenengo pausoa litzateke. Bigarren ondorioa hurrengo prozesuari dagokio: Dirudienez, udalak ere ez ditu artista eta sormen merkantilizatu bati lotutako pertsonak betirako nahi, horregatik emandako laguntzak 5 urteko epea dituzte. Gerora beste plan batzuk dituelaren ustea dut, horiek gaur egun ematen ariko liratezkenak.

## BOTEREA: AUTORITATEEN DISKURTSOAK

Kameren kokapena bertako auzokideek euren segurtasun propiorako ezarri ez dituzten heinean, hau da, kanpotik eratorritako ekimen bat den heinean, horren kokapen eta honek dakarren praktiken legitimaziorako diskurtso baten beharra dago. Ohikoena izaten da beti kontzeptu eta erreferentzia berdinetara jotzea. Beste testuinguru batzuetatik honako adibideak aurki daitezke:

Nahiz eta espainiar hiritargoarentzako bideobigilantzia errealitate nahiko onartua den leku eta espazio askotan, ez da ikusten delinkuentziaren aurkako tresna eraginkor bat bezala, hau da, gaizkileak harrapatzeko, baina bai ikusten da segurtasun eta lasaitasun subjektiboak (igarritakoak, ez gertatutakoak) sortzeko. Hau da, ez dago delinkuentzia gutxitzeko balio dutenaren pertzepzio soziala, nahiz eta hau izan autoritateek dispositibo hauen instalaziorako erabiltzen dituzten argudioak ( Ruiz Chasco, 2014:312).

4/1997 Lege Organikoak, segurtasun indarrak leku publikoetan bideobigilantzia dispositiboan erabilpena erregulatzen du. Lege honen arabera, dispositibo hauek “hiritarren elkarbizitza bermatzea, biolentziaren desagertzea, espazio eta bide publikoen erabilpen baketsua eta delituen falta eta arau-hauste administratiboan burutzea ekiditzea” helburutzat. Honen



arabera, horrelako teknologien instalazioa delinkuentziaren aurkako borrokari erantzuten dio, kamerek delituen disuasio eta saihespena eragingo dutelakoan (*Ibidem*: 312).

Madrilgo Lavapieseko auzoko kameren inguruan, 2009.urtean hauek “izaera disuasorioa izango zutela, bai elkarbizitza arazoentzako, bai falta eta delituen burutzearekin harremandutakoetarako”. Beraz, “auzokoek, merkatariak eta baita bertara bisitan doazenek bizi kalitatean irabaziko dute” (*Ibidem*: 319).

Dena den, Lavapiesen jarraituz, 2012.urtean onartutako *Madrilgo Lavapieseko Auzoaren Segurtasun eta Elkarbizitzaren Hobekuntzarako Plan Integralean* dirudenez arazo hauek sortzen dituzten kolektiboak aipatzen ditu. (*Ibidem*: 319). Konkretuki planak “gazte taldeez” hitzegiten du, “ talde antisistemekin harremanetan daudenak, eta Lavapies auzoa euren protesta gune bihurtu nahi dutenak” (*Ibidem*: 319).Bestalde, planak “etorkin txiroei” elkarbizitza arazoaren sortzea leporatzen die. Hauek izango liritezke bigarren kolektibo seinalatua\* (*Ibidem*: 319).

## EKINTZA: TAKTIKA ETA ERRESISTENTZIAK

Botere harremanen omnipresentzia egiaztatu eta gero, irudituko luke ez dagoela agentziarako margenik, baina egunero ikus daiteke nola nola edo hala hauek uzten dituzten zirrikietatik isurtzen garen gure espazio eta autonomia propioak mantendu ahal izateko.

Autore ezberdinen arabera, erresistentzia hauek botere harremanekin erlazio dialektiko batean garatzen dira, txanponaren beste aldea bailiran. Hauen arabera, erresistentzia hauek botere harremanei atxikituta daude. Ez hauekiko subordinatuak, baina bai botere harremanen erantzun bat bezala, betiere hauengatik baldintzatuta dagoela kontuan izanik (Foucault, esaterako) ( Abad Medina, 2007: 8).

Beste batzuek ordea, erresistentzien originaltasuna azpimarratzen dute, hauek botere harreman egonkortuen aurka azaltzen direlarik. Honek erresistentzien sorkuntza (hauen egikarritza, baina baita hauen atzean dagoen sormen lana azpimarratuz) genuino bat behar duelarik. Erresistentziak prisma honen pean hartuta, botere harremanen aurka azaldutako ekintzak ulerkuntza propioa lukete, disziplina hegemonikoaren orbitatik at legokeena. Honen adibide Michel de Certeau dugu (*Ibidem*: 3).

Azkeneko autore hau izpide hartuta, botere ekintzak bi kategorietan banatzen ditu:

- Estrategiak: de Certearen arabera, estrategia indar harremanen kalkuloa (edo manipulazioarekin) burutzea ahalbidetzen dion subjektu isolagarri batekin (enpresa, armada, hiri bat, instituzio zientifiko bat) dago harremanetan. (De Certeau, 2001:400) Estrategiak beretzat har dezakeen leku bat dauka, eta bertatik bestelako kanpotasunekin (bezeroak, arerioak, lehiakideak...) harremantzeko gai da (*Ibidem*: 400). “Berezko” leku bat izateak hainbat eragin ditu:
  - Leku bat berezkozat izateak lekuaren partetik denboraren aurkako garaipen bat suposatzen du. Denboraren menperatzea dakar leku autonomo baten sortzeagatik (*Ibidem*: 400).
  - Begiradaren bitartez ematen den lekuen menperatze bat ere suposatzen du. Ikuskera panoptiko honek espazioaren irakurketa bat baitakar (*Ibidem*: 400).

## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



- Ezagutzaren gaineko botere bat ere suposatzen du, historiaren gune ulertezinak irakurgarri bilakatuz. Ezagutza garatzeko boterea behar da, eta botere hori non kokatu, espazio bat beraz. Botere hori ezagutzaren aurrebaldintza bat da, eta hortxe bertan sortzen da baita ere (*Ibidem*: 401)
- Taktikak: Honako hauek ordea, lekutasunak baldintzatutako ekintzak dira, beraz besteen espazioetan murgilduta darabilte (*Ibidem*: 401). Taktikak besteen espazioak besterik ezin daiteke izan, eta honek inposatzen dizkion lege batzuen arabera moldatu behar da. Ezin da bere kasa bizi (*Ibidem*: 401). Kolpez kolpe bizi da, aukeretaz bizi da, eta ez dauka etekinak metatzeko oinarririk, baina horrek denboraren poderioz gerta daitezkeen aldaketetara moldatzeko ahalmena handitzen dio (*Ibidem*: 401). Ikusia izan gabe ehizatzen du, ezustekoak sortzen ditu, espero ez zaion lekuetan egotea dauka, azkarra eta bizkorra da (*Ibidem*: 401).

Bi kontzeptu hauek, aztergai den eremuan definitzea erraza litzakete. Estrategiak denon begien aurrean dauden instituzioetan gorpuztuta egongo liratezke: Udala, polizia, kamerak eta hauen instalazioaz arduratutako enpresak, koordinadorak eta auzokide taldeak...

Aldiz, taktikak, euren izaera iheskor eta ikusezinagatik, zailagoak liratezke operatibo egitea, baina seguru asko disziplina eta kontrol mekanismoengatik zelatatuenak sentitzen diren pertsona eta kolektiboen partetik burutuko dira, hala nola, etorkinak, droga menpekoak, prostitutak, ikuskatuak diren kale horietako bizilagun eta merkatariak... Hauek izango dira seguru asko kontrolari aurre egin edo honen atzaparretatik haien baliabideen bidez ihes egiten saiatuko direnak. Taktika hauek zenbait subjekturen (haien hiritartasun maila txikiagatik dispositibo sekuritarioetatik at sortutako defentsak behar dituztenak ) (Cantos & Garcia, 2015: 219) agentziaren aztarna uzten dituzte. Hauek autodefentsaren ildotik joan daitezke norberaren burua defendatzen ikasiz (*Ibidem*: 219), norberak besteengan kolektibo estigmatizatu baten parte izateagatik sortutako ezinegon edo beldurra kudeatuz (*Ibidem*: 220) edo baita ere liskar baten judizializazioak ekidinez, aferan tartean dauden pertsonen arteko hirugarren pertsona baten arbitraia bidez (*Ibidem*: 220).

Beste bizirauteko taktika bat kamufilaia litzateke, hau da, norberaren egoeragatik (kolektibo estigmatizatu, arrazializatu edo baztertu bat izatea) norberarengana zuzendua egon daitekeen bortxa, poliziaren partetik edo beste edozein lekutik etorritakoa, ekiditzea norberaren egoera ezkutatzuz, edo hobeto esanda, "izkutatu beharreko zerbait" dagoela izkutatzuz (*Ibidem*: 221). Beldurra ezkutatu beldurra izan behar ez izateko.

Azkeneko bat komunikazioaren esferan ematen da. Kanpotar ispositibo displizinario eta sekuritarioen kokatzean, ekintzen eraldaketa bat ematen da, baina dinamikak bere horretan jarraitzen dute, egoera berriari moldatuz. Testuinguru honetan kokatzen da gaitasun komunitatiboen garapena, ekintza ilizitoak garatzen dituztenak, manteroak eta droga saltzaileak, esaterako, keinu eta soinu (oihu, hitz klabeak edo txistuak) bilduma bat garatzen dute euren aktibitatea babesteko eta dispositibo biopolitikoaren atzaparretan ez erortzeko. Horien adibide dira poliziaren etorreraren berri emateko txistuak edo manteroen euren maindiretan jartzen dituzten sokak, ihesa ahalik eta azkarren burutzerara aldera (*Ibidem*: 221). Esan beharra dago dispositibo sekuritario arrotz hauen instalazioarekin praktika klandestinoak kudeatzeko eta elkar komunikatzeko tresna, esanahi eta amarruak handitu egiten direla, ihes egiteko gaitasunak presio polizialarekin batera areagotzen baitira (*Ibidem*: 221).



## ONDORIOAK: HETEROTOPIA DETERMINATU

Heterotopiaren kontzeptualizazioan azaldu dudan bezala, honek hainbat atributo ditu, eta horietatik ikergaira txertatzeko aproposenak aukeratuko ditut, ondoren testuinguruan determinatzeko eta konkretatzeko.

Hauetan garrantzitsuenak heterotopiek daukaten funtzioen inguruko hausnarketa iruditzen zait funtsezkoen. Heterotopiak espazio anitzak batzeko (eta hauen funtzio ezberdinak bateratzeko ahalmena) ematen duten aukera (Foucault, 1999: 22), heterotopiak bereaz gaindiko espazioekiko duen alderaketa funtzioa (*Ibidem*: 24), eta praxiak espazio horren funtzioa eraldatzeko ahalmena (*Ibidem*: 21) hain zuzen ere.

Aztergai den auzuneak funtzio anitzdunak dira, eta hori sekuritate dispositiboen kokapenagatik (eta hauen gabeziagatik) ondoriozta daiteke. Ez da bilatzen gauza bera San Franzisko kalean edo Aretxaga edo Hernani kaleetan. Ez dute funtzionalitate bera interes ezberdinak baitaude horien inguruan. San Franzisko kalea bideokamerez gainezka dago eta ez dago haien begiradatik ihes egiteko inolako aukerarik. Hemen etorkinen komertzio, jatetxeak, ileapaindegiak... pilatzen dira eta pertsona guzti hauek segurtasun hauen objektu bilakatzen dira lehen azaldu dudan bezala, arriskugarritasunaren printzipioaren arabera. Bestalde, Aretxaga kalea jatetxe abanguardistaz ari da betetzen, estetika moderno eta sofistikatuz, kale hau kolonizatzen. Hauek, besteak ez bezala, gune horren balorizazio bat dakarte eta hori kapital metaketaren gurpila koipetu egiten du.

Gune honek badu baita ere bere zeregina kanpokaldearekin, honen iruditeri baten sorkuntzak zenbait politika sekuritario eta poliziak bultzatzen dituelako. San Franzisko Bilbo hiriko beste hainbat guneren (Zabalgunea, Guggenheim, Abandoibarra...) alde iluna da. Gune guzti hauek kapitalak erakartzen baitituzte, eta aldiz, ibaiadarraz bestaldeko kaleak ez edukien biziguneak bilakatu dira eta opilaren zatiren bat eskatu ez dezaten, haien portaera eta jarreraren disziplinatze eta bigilantzia bat ipintzen da martxan, gune hauen eta haien bizilagunen kriminalizazio eta estigmatizazio prozesu performatibo bat sustatuz.

Dena den, Honek utzi egiten du espazioaren ulermenaren aldaketarako tarteren bat. Disziplina eta norabide bakarreko botere harremanen ertzetan badaude honi aurre egiteko, edo behintzat horren esferatik ihes egiteko ahaleginak.

Bertakoen artean, beste hainbat gune kolonizatu, sekurizatu eta pazifikatuetan gertatu den bezala, kanpotar arrotz eta hotz horren aurka azaldu dira zenbait jarrera, portaera, hitz, keinu, soinu... sortuz edo egoera horretara moldatuz haien biziraupena bermatu eta mantendu ahal izateko. Horren adibide liritezke zenbait emakumek poliziaren rol maskulinizatuaren aurrean euren feminitatearen erakusketa bat burutzea, honek agindu burokratikoak zapuzteko asmoarekin eta horrela aske geratzeko (Cantos & Garcia, 2015:221). Baita ere lehen aipatu ditudan manteroen taktikak (txistuak, hitz gakoak... beste zenbait kolektibo arriskugarrik, droga saltzaileak esaterako, haien lan bizimoduan txertatu ditzazketenak).

Ondorio nagusi bezala esan daiteke espazio hau (San Franzisko eta Bilbo Zaharra auzuneak, geroago metodologian zehatzako mugatuko ditudanak) lehenengo begirada batean iruditu daitekeen baino konplexuagoa eta anitzagoa dela da. Interes eta botere harreman ugari kristalizatzen dira bertan eta horrek kale batetik besterako bidaia espazialki urrats bateko izatea, baina subjektiboki bira izugarria suposatzea dakar. Kamarak, poliziaren joan etorriak eta etorkin kuadrilak kantoiaren ertzeetan eta handik bost metrora, hurrengo kalean orain dela urte

bat zabaldutako jatetxe moderno bat, non ondoko kaleko etorkin bat ez litzateke inolaz ere bertan sartuko garagardo bat hartzera. Alde izugarriak kilometro karratu bakan batzuetan. Bere burua ezagutu ere ezin dezakeen espazioa, zeharkatzen duten botere harreman aldebakar eta zorrotzengatik.

## GEHIGARRI BAT: ESPAZIOAREN ZEHAZTAPENA


Marko teorikoan zehar aztergai izango den espazioaren historia eta eraldaketa deskribatu da. Bilbo hiriaren beste guzuekin duten harremana eta aldeak eta instituzioetatik nolako kudeaketa izan duen. Hala ere, deskribapen hau ez da oso modu zehatzean egin, hau da, ez da zehatz-mehatz zehaztu zein izango den subjektibitatearen azterketarako ardatz bezala hartuko den espazioa. Metodologia litzateke puntu hau garatzeko atal egokiena.

Orain arte espazioa San Franzisko, Bilbo Zaharra eta Gorte kale eta auzuneetan mugatu dut, baina hori geografikoki mugatu beharra dago, eta hori EUSTAT-en zentzu-sekzioen 2010. Urtean burututako txostenean oinarrituko naiz. Txosten honek 2010. urtean EAEko zentzu-sekzio guztiak aztertu egiten ditu, hauek guztiak 12 tipologiaren arabera sailkatuz, honetarako aldagai ugari (jaioterria, sexua eta adina, errenta, titulazio maila, lanbidea, ama-hizkuntza, familia tamaina...) (EUSTAT, 2013: 6).

Txostenean, ordea, ez dituzte sekzio guzti-guztiak aztertzen. Hori EUSTAT-eko webguneko aplikazio baten<sup>1</sup> bidez egin daiteke. Honetan tipologia bakoitza kolore bati dagokio eta mapan sekzio bakoitza kolore batez margotu egiten da, mapa kolorez betetako mosaiko batean bihurtuz.

Aztergai den gunera joz, ikus daiteke tipologia bat dela nagusi, txostenean 5. tipologia bezala deskribatzen dena. Hau mapan kolore larrosa argiz koloreztatzen da eta honako espazio hau barnebiltzen du:

### 3. Irudia: EUSTAT-en arabera 2013. urtean eguneratutako sekzioen tipologiaren sailkapena San Franzisko, Bilbo zaharra, Alde zaharra, Atxuri eta Zabalguneko zenbait ataletan



Iturria: EUSTAT

<sup>1</sup>: [http://www.eustat.eus/indic/idioma\\_c/indicadoresgraficosGearth.html#axzz4Jltn4Bd3](http://www.eustat.eus/indic/idioma_c/indicadoresgraficosGearth.html#axzz4Jltn4Bd3) webgunean eskuragarri

# SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



Hartutako irudian ikusten den bezala, badago Ibaizabal ibaiaren hegoaldeko ibarrean nahiko ezaugarri homogeenak dituen espazio bat (hartutako irudian perimetro beltz baten barruan sartu dudana), barnebiltzen dituen sekzio guztiak tipologia berdinari baitagokiete.

Eta zertan datza, ba, tipo hau? Zertan desberdintzen da besteengatik? Tipologiaren analisia burutzen duen txostenera joanez, honako hau azaltzen da:

Sekzio mota honetan oro har 1961. urtea baino lehen eraikitako etxebizitzak daude. Hauek 61m<sup>2</sup> baino azalera gutxiagokoak eta hauetan 24-44 urte bitarteko pertsonak bizi dira batez ere (*Ibidem*: 19).

Bestalde, gune hauetan batzbestekotik beherako familia-errentak eta lehen-mailako titulaziodun pertsonak dira nagusi (*Ibidem*: 19)

Azkenik, nabarmentzekoak dira atzeritik kanpo jaiotakoak, pertsona bakarreko zein 5 pertsona edo gehiagoko familiak, erdaldunak, langile ez-kualifikatuak eta langabeak (*Ibidem*: 19).

Ikus daitekeen bezala, txosnetak uniformetasun bat eta ezaugarri zehatz batzuk dituen espazio bat definitzen ari zaigu, marko teorikoan landutakoarekin bat datorrena: etxebizitza zaharrak dituen, gune marginala (langabezia, ikasketa maila baxuak, kualifikazio eskasa, familia-errenta baxuak...), erdalduna, atzeritar kopuru nabarmena duena...

Hau guztia kontutan hartuta, gune horixe bera, orain mugatua eta zehaztua dagoena, erabaki dut izatea nire ikerketaren teknikak aurrera eramateko espazioa.

## HELBURUAK

Behin ikerketa honetan erabilgarri izango diren ezagutzak plazaratu eta gero, ikerketa enpiriko orok eskatzen duen bezala, honek zehazki dauzkan helburuak zehaztuko ditut.

Hauek bi multzotan sailka daitezke, haien aztergaiaren arabera, Horieta bik espazioaren bizipena, pertzepzioei...erreparatzen die. Batetik, Auzoaren ulermen kartografiko analitikoak ikertuko da, eta bestetik ikusmen telurikoagoa, kalearen azaletik beratik ikusi nahi da bertako biztanleek honekiko zer nolako harremana duten zentzu batean alienatu egin zaizkien leku, txoko horiekin. Bi helburu hauek honakoak liratezke:

- San Franzisko eta Bilbo Zaharra auzuneetan dauden bideokamerak topatu eta kontabilizatzea.
- Kameraren eta sekuritate dispositibo biopolitikoaren eragina gaitsezteko aurrera eramaten diren taktikak antzematea metodologia etnografiko baten bitartez.

Bigarren helburu multzoa diskurtsoei dagokie, norgehiagoka honetan parte hartzen duten bi subjektibitate antagoniko, baina aldi berean anitzei. Helburuetako batek udalaren, instituzio, polizia-erantzuleen diskurtsoa jasotzea bilatuko du San Franzisko auzoko kameraren inguruan, eta bestetik bertako biztanleen ikuspegia analizatzea izango du xedetzat, kameraz aparte polizializazio eta gentrifikazio prozesuen inguruko begiradak jasoko direlarik. Hauek honako hauek liratezke.



SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN:  
PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA,  
TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



- Kameran inguruan bertako autoritate instituzionalek (udala, alkatea, udal polizia, Ertzaintza...) kameren inguruan eraikitako diskurtsoak analizatzea.
- Kameran, auzuneen polizializazioaren eta espazio horren gentrifikazio prozesuaren inguruan bertako biztanleek dituzten diskurtso eta pertzepzioak jasotzea eta aztertzea, faktore soziodemografikoen arabera banatuta.



### 3. METODOLOGIA

---

Arestian garatutako marko teorikoan ez dira zenbakiak eta datu hutsak agertu. Ez proportzio, ez portzentai, ez kopururik. Kontzeptu analitikoak eta subjektibitatearen eraikuntzarekin loturikoak baizik. Hau horrela izanda, logikoena ikerketa honetako metodologia kualitatiboa izatea, ez baitnabil kopuruen bila. iritzi, pertzepzio, bizipen eta ekintzen semiotikaren bila nabil.

Hau horrela izanda, metodologiak honako atalak izango ditu: lehendabizi espazioaren mugapen zehatzago bat egingo dut, marko teorikoan ezarritako abstrakzioaren zehaztapen bat (hau da, zehazki zein kale, auzo...hartuko diren kontuan, aurretik aipatutako pautak zehatzgabeak lekuan bertan kokatuz). Ondoren diseinua eta metodolgoa sakonago jorratu. Gero teknikak eta hauen garapena, kontuan hartutako aldagai soziodemografikoa, eta oro har teknika hauek aplikatuko zaion biztanleriaren hedapena.

#### IKERKETA-DISEINUA

Ikerketa diseinuan ikerketaren planifikazio bat burutzen da (Babbie, & Etxebarria & Gil 1996: 111). Hau da, zer ikerituko den, nola, zer epetan eta zer tresnen bidez... Diseinuan lehendabizi zer ikerituko den zehaztu behar da, eta honetan oinarrituz, hori lortzeko lanabes eta tekniken aukeraketa zehaztua eta justifikatua (*Ibidem*: 111). Aurreko atalean ikus zitezkeen bezala, lau helburu proposatu ditut ikerketa honen bidez burutuak izan daitezkeen: 1. Arestian zehaztutako espazioan dauden bideokameren zenbaketa burutzea eta hauen kokapen zehaztea, 2. Sistema eta dispositibo sekuritarioei aurre egiteko lekuan bertan ematen diren taktiken antzematea eta ikuskapena, 3. Kameren kokapenaren arduradunak diren autoritateen diskurtsoak aztertzea eta azkenik 4. Kameren, auzoaren polizializazioa eta gentrifikazioaren inguruan espazio zehaztu horren biztanleen (geroago konkretatuko direnak, hauen ezaugarri soziodemografikoekin batera) diskurtsoak antzematea eta ikertzea.

Hauek modu zehatzago batean aurrerago finkatuko ditut, hau da, zer teknika erabiliko diren, aldagai eta subjektuen konkretzioa... Orain ikerketa bere osotasunean hartu eta honen nondik norakoak zehaztuko ditut.

Ikerketaren helburuei erreparatuta, hauek deskriptiboak izango dira, hau da, hauekin errealitatearen deskribapen bat burutu nahi da (*Ibidem*: 116). Egoera bati begirada bat bota eta bertan zer gertatzen den islatzea, egoera horren ahalik eta ikusmira gehien kontuan harturik. Hala ere, badu ere azaltzailea izateko grina, izan ere, ikerketa honen atzean zenbait prozesu, pentsamendu eta jarrerren zergatia bilatzeko asmoa ere badagoelako (*Ibidem*: 116).

Bestalde, analisi unitateak bi motatakoak izango dira, helburuaren arabera. Lehen eta bigarren helburuen analisi unitateak tramankuluak izango dira (*Ibidem*: 120). Lehenengoak kaleko bideokamerak eta hirugarrenean egunkarietako artikulak izango dira. bigarren eta laugarren helburuetan gizabanakoak izango dira (*Ibidem*: 118). Laugarren helburuan pertsona



hauen ezaugarri soziodemografikoengatik izango dira hautatuak, eta bigarreanean lekuan lekuko harreman eta erlazioengatik izango dira behatuak eta hautatuak.

Enfoke puntuetan erreparatuz gero, Babbie-k hiru desberdintzen ditu: Ezaugarriak, norabideak eta ekintzak (*Ibidem*: 126-127). Ikerketa honetan hiruretan fokalizatuko naiz, nahiz eta batzuk besteetan barneratuta egon. Ezaugarriak pertsonen subjektibitatea determinatzen dute, eta berebiziko garrantzia dute hauen pentsakera eta diskurtsoak zehazterako orduan (*Ibidem*: 126). Hauetan laugarren helburuak zentratuko naiz batez ere. Norabideak arestian aipatutako ezaugarriengatik daude baldintzatuak (*Ibidem*: 127). Hauen barnean pentsakerak, sinismenak, aurreiritziak... barnebiltzen dira. Hauek hirugarren eta laugarren helburuetan izango dira garrantzitsuak, izan ere, bi hauen bidez bi subjektibitate oso ezberdinen diskurtsoak eta jarrerak zehazten baitituzte. Azkenik ekintzak daude. Hauetan pertsonen arteko interakzioak barnebiltzen dira (*Ibidem*:127), eta hauek batez ere bigarren helbururako edukiko ditut kontuan.

Denboraren partetik, ikerketa honen diseinua trasbersala izango da, hau da, testuinguru espazial bateko momentu zehatz batean gertatutakoa, pentsatutakoa, esandakoa, idatzitakoa... ikertu nahi baita (*Ibidem*: 128). Honek badu nolabaiteko arazo bat, eta hau momentu zehatz bateko begiradek daukaten akatsei egiten die erreferentzia, izan ere, ezin daiteke oso ongi ulertu begirada baten bidez testuinguru baten errealitatea haren eraldaketa historikoa kontuan ulertu gabe. (*Ibidem*: 129). Dena den, ikuspegi historiko hau aurretik azaldu dudala uste dut, espazio horren nondik norako historikoa argituz.

## LAGINKETA

Ikerketa bateko helburua unibertso jakin bateko informazioa jasotzea izan ohi da, baina gehienetan hori ezinezkoa gertatzen da, ezin delako bertako pertsona guztiak kontuan hartu (Juaristi, 2003: 65), Horregatik erabiltzen dira laginketak, unibertsoa osoa ezin bada ikertu, behintzat horren atal adierazgarri bat aztertu ahal izateko (*Ibidem*: 65).

Kasu honetan hirugarren eta laugarren helburuetarako soilik erabiliko da laginketa, lehenengo helburuan unibertso guztia ikertu delako (bideokamera guztiak), eta laugarrenean unibertsoa erabat zehaztugabea dagoelako, behaketa horretan dauden pertsonak zenbat izango diren ezin delako aurrez aurretik jakin.

Horrela, haien unibertsoa murrizteko erabilitako laginketen arteko antzekotasun bakarra biak laginketa ez-probabilistikoak izango direla da. Hirugarren helbururako komenientziatzko laginketa egingo da. Ikertu beharreko artikuluak hauen eskuratze erraztasunagatik izango dira aukeratuak (*Ibidem*: 223). Dena den, hori lehen mailako irizpide bezala hartuko da. Bigarrena ikuspuntu subjektiboaren arabera izango da, hau da, nire usteen eta jakintzen arabera aukeraketa bat izango da baita ere, saturazio puntu batera heldu arte luzatuko dena (*Ibidem*: 223). Laugarrenean ordea prozedura elur-bolaren teknika erabiliko da. Prozedura honelako zerbait izango da: ikerketan parte hartzeko baldintzak (kontuan hartuko diren aldagaien kategoriak partekatzea) betetzen dituzten pertsonekin kontaktuan jarri eta hauei ikerketan parte hartzeko prest egongo liratezken pertsona gehiago ezagutzen dituzten galdetzen zaie, horrela pixkanaka pixkanaka lagina handitzen doalarik (*Ibidem*: 74).



## TEKNIKAK

Gizarte zientzietan erabilitako teknikak gizartearen eta gizakien egoeraren inguruko ezagutza modu sistematiko batez eta zehatzazunez aztertzeak aukera ematen digute eremu zientifiko honetako teknikak (*Ibidem*: 13).

Lehen esan bezala, ikerketa honen metodologia kualitatiboa izango da, eta helburu bakoitza burutzeko teknika bana erabiliko dut.

### 1. helburua

Lehenengo helburua San Franzisko auzoko bideokamera guztiak topatzea, haien kokagunea zehaztea eta kontabilizatzea da. Honako hau besteak beste prentsa artikuluen zehaztasun ezagatik planteatu da, izan ere, artikulua ezberdinetan kopuru (14, 18, 19 kamera?) eta kokaleku ezberdinak zehaztu dira. Horregatik, hauek guztiak modu zehatzago batean zehazteko helburu hau betetzea garrantzitsua izango litzatekela uste izan dut. Kamerekin disziplinamenduaren funtzio panoptikoa betetzen duten heinean dira interesgarriak ikerketa honetarako, baina baita ere uste dut kamerak ez ezik, hauek kokapenaz ohartarazten dituzten kartelak funtzio disuasorio eta biopolitiko bat dutela ere uste dut, eta horregatik zenbaketa honetan kontuan hartzekoak direla deritzot. Datu guzti hauekin auzunearen mapa bat osatzeko intentzioa daukat, kameraren kokapena espazioaren konfigurazio zehatz bat eskainiko digulakoan.

Hau burutzeko aurrera eraman beharreko teknika behaketa zuzena (*Ibidem*: 195) izango da, eta honako irizpideak beteko ditu: deskribatzailea izango da, errealitate batekiko begirada soil bat besterik ez da egin nahi eta (*Ibidem*: 200), egituratua, bilatzen dena alde aurretik zehaztuta baitago (*Ibidem*: 200). Baldintza naturaletan burututakoa, errealitatea den bezalakoa, inolako manipulaziorik gabe behatu nahi delako, eta ez-partehartzailea, teknika burutu bitartean ez delako ikertuekin (kasu honetan tramankulu batzuekin, kamera eta kartelekin alegia) inolako harreman zuzenik egongo.

### 2. Helburua

Bigarren helburu honetan dispositibo biopolitiko eta sekuritatezkoen influentzia eta eragina saihesteko taktika, portaera eta jarrera posibleen bila aritzea planteatzen da behaketa metodologia baten bidez, eta zehatzago izanda behaketa etnografiko baten bidez.

U.Flick berak planteatzen duen bezala, behaketa zenbait fasez osatzen da (Flick, 151: 2004)

- Lehendabizi, behaketa teknika eman nahi den ingurunea eta testuingurua definitu beharra dago. Kasu honetan San Franzisko auzuneko kameradun gune bat izango da, oraindik zehaztu gabe dagoena.
- Ondoren, dokumentatu beharrekoaren definizioa egin behar da. Kasu honetan ezin da horrelakorik egin, behaketa ez-egituratu bat egitea planteatzen delako (Juaristi 2003: 200). Kasu honetan bilatzen denaren definizio zehatzik ez dago eta oso kategoria

## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



zabalak erabiltzen dira behatutako erregistratzeko. Egoera hau izanda, ikusitakoa jasotzeko modu bakarra notak hartzea izango da.

- Behaketaren enfokea definitu behar da baita ere. Kasu honetan behaketa fokatua izango da, hau da, planteatutako helburura egokitzen diren portaera, jarrera... zehatz posibleen erregistroa burutzea xede duena.
- Azkenik, behaketaren saturazio teoriko bat betetzerakoan, behatzeari uztea.

Honako hau litzateke behaketa baten prozedura Flick-en ustetan. Azalpen honetan jada planteatu nahi dudan behaketaren hainbat ezaugarri plazaratu ditut, dena den, hauen azalpen zehatzago bat egingo dut orain:

- Behaketa ez-partehartzailea izango da, non behatzaileak ez duen fenomenoan edo ikergai den portaeran parte hartzen (Juaristi, 201: 2003).
- Bestalde, ikertuek ez dute ikertuak ari direlaren informazioa izango, horrek fenomenoan gutxieneko erreaktibitatea sortzearen (Flick, 2004: 152). Horrela, ikerlariaren rola behatzaile osoarena (*Ibidem*: 150) izango da. Honek ikertuekin inolako kontakturik ez edukitzea saiatzeko da haiengan eraginik ez sortzeko. Baldintza hauek dituen behaketari "isilpeko behaketa" (observación encubierta) bezala izendatzen du Flick-ek (*Ibidem*: 150).
- Gainera, behaketa baldintza naturaletan burutzea planteatzen da. Honelako kasuetan ez dago talde esperimentalik, eta errealitatea den bezala, inolako manipulaziorik gabe, aztertzen da (Juaristi, 2003: 201).
- Lehen azaldu dudana bezala, behaketa ez-egituratu bat planteatzen dut. Ez dago ikusitakoa edo potentzialki jaso daitekeenaren sistematizazio bat burutzeko eskemarik (Flick, 2004: 150). Estandarizazio falta honetatik, gerta daitekeenarekiko malguagoa eta sentiberagoa izango da behaketa (*Ibidem*: 150).
- Azkenik, eta agian garrantzitsuen, behaketa esploratorioa izango da. Hau da behaketa ez-egituratua izatearen arrazoi nagusia, ez dakidanez zer nolako portaera, jokamolde... aurki ditzazkedan, hauek bere testuinguruan agertzen eta dokumentatzen saiatuko naiz, honekin hauekiko lehendabiziko hurbilpena litzatekelarik (Juaristi, 2003: 199). Honek ere arestian aipatutako malgutasun eta sentiberatasunarekin lotuta daude, zer erregistratu ez dudanez jakingo, inguruko gertaera, portaera eta estimulu guztiei egon beharko naiz adi (*Ibidem*: 199).

Planteatu dudana behaketa hau hala ere ezaugarri hauetaz aparte beste berezitasun bat edukiko du nire behaketak, behaketa etnografiko bat burutzea pentsatu baitut. Aurretik azaldutako puntu guztietara behaketa etnografikoarenak gehitu behar zaizkio. Flick-en esanetan, ikerketa etnografikoak honako ezaugarriak ditu:

- Eremu natural batean fenomeno sozial zehatz baten ikerketarekiko interes bizia (Flick, 162: 2004).
- Datu ez-egituratuekin lan egiteko joera (*Ibidem*: 162).
- Kasu gutxi batzuen ikerketa, zenbaitetan bakar batena (*Ibidem*: 162)
- Datu analisia giza ekintzen esanahi eta funtzioen interpretazioan zentratzen da, kuantifikazioa eta analisi estatistikoa menpeko leku bat hartuz (*Ibidem*: 162).

Etnografiak, beraz, "bizitza mundu" txikien eta determinatuen ikerketan zentratzen da (*Ibidem*: 163). Kasu honetan San Franzisko auzoko kale bizitza izango da ikertua izango dena, bertan bizilagunek eta ibiltariak kameran, poliziaren...ekintzen eta eraginari muzin egiteko, edo zuzenean aurka egiteko tekniken bila. Hauxe izango da nire behaketaren izpiritua beraz.

### 3. Helburua


Hirugarren helburu honetarako erabiliko dudana teknika eduki analisia izango da. Teknika hau gizarteko erakunde, elkarte eta gizakien eguneroko harremanen testigantza jasotzen duten material ezberdinen azterketa izango du ardatz (Juaristi, 2003: 215). Hauek mota ezberdinekoak izan daitezke: bideo edo ahots grabazioak, pelikulak, abestiak, egunkarietako artikulak, diskurtso bat... oraingo honetan egunkarietako artikuluetan eta bideo batean zentratuko naiz, geroago hobeto azalduko dudana moduan.

Zehatzago izateko, eduki analisi hau kualitatiboa izango da. Honek lortutako datu sekundarioetatik kodifikazio eta kategorizazio bat sortzea izango du helburutzat, lortutako edukietatik egitura bat sortuz, material masa zabal batetik pixkanaka pixkanaka hau txikituz eta garrantzitsuenak diren puskak aztertuz (Flick, 2004: 230).

Kategorizazioa litzateke lehen pausua, hau da, datutegi zabal batetik aztergai dena aukeratu eta antolatzea, baina ondoren bigarren pausua geratzen da: Analisi, honetarako diskurtso analisi teknika erabiliko dudalarik (*Ibidem*: 230). Bi teknika hauen arteko uztarketa kasu honetan kateatze izenez ezagutzen da (Callejo & Rojas 2005: 57), eta bi teknika erabiltzean datza, non lehenengoaren emaitzek bigarrenengoarengatik erabiliak diren (*Ibidem*: 57).

Aipatutako azken analisi teknika hau pertsona, talde edo instituzio baten gertakari edo gai baten inguruko bertsioa eraikitzeke balio du, horretarako testu ugarien aurretiazko analisia burutu delarik (Flick, 2004: 230-231).

Kasu honetan kateatzearen prozedura hobeto ulertu ahal izateko hurrengo eskema lagungarri gerta daiteke:



Lehen esan bezala, teknika honen bidez aztertu beharreko edukiak konbenientziatzeko laginketa (Juaristi, 2003: 223) baten bidez aukeratu dira. Laginketa mota ez-probabilistiko honek erraz lortu daitezkeen testuen aukeraketan datza (*Ibidem*: 223). Hala ere, hau ez da lagina osatzeko erabiliko den irizpide bakarra. Erraz lortzeko irizpideaz aparte nire iritziz adierazgarriak izatea ere kontutan hartuko dut, eta baita ere ahalik eta testurik berrienak izatea (Valles, 2007: 130).

Behin analisi unitateak egunkarietako artikulak direla zehaztuta, ikertu beharreko instituzio, pertsonak... zehaztu beharra dago. Beraz, noren hitzak ikertuko dira?

Aztertuko diren hitzak Bilboko alkatearenak (kamerak instalatu ziren garaikoa, baina egotekotan eta adierazgarri izatekotan hurrengoan baita ere), zinegotzienak, udaltzaingoarenak, Bilboko udalean ordezkariak duten alderdiek esandakoa, udalak berak

## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



ofizialki botatakoak eta Ertzaintzaren (bai ofizial, agente, zein instituzio poliziala bera) esandakoak.

Hori guztia aztertzeko bilaketa eta alderaketa baten ondoren honako artikulua lagin hau eratu dut, kronologikoki antolaturik:

- Europa Press (2008/02/22) Azkuna anuncia que el barrio de San Francisco contará con cámaras para “vigilar mejor la calle”. *El Correo*.
- Josu Garcia (2008/02/23) Azkuna anuncia ahora que pondrá cámaras de vigilancia en San Francisco. *El Correo*.
- Santiago González (2008/02/23) Un ojo a la calle. *El Correo*.
- Luis Gómez (2008/02/26) El PP pide colocar cámaras de videovigilancia en Bilbao la Vieja y Miribilla. *El Correo*.
- Luis Gómez (2008/02/27) El número de delitos se duplica en Miribilla en solo cuatro años. *El Correo*.
- Ainhoa de las Heras (2008/02/29) 14 cámaras vigilarán San Francisco a final de años para combatir la criminalidad. *El Correo*.
- Ainhoa de las Heras (2008/03/01) San Francisco se deja ver. *El Correo*.
- J.G. (2008/07/09) Los policías tendrán que reciclarse. *El Correo*.
- Ainhoa de las Heras (2008/09/21) “Salvo en bancos y joyerías, no se justifica mantener a vigilantes con armas” . *El Correo*.
- Vasco Press (2009/09/29) Las imágenes de las cámaras de San Francisco llegaron a la Ertzaintza en noviembre. *El Correo*.
- Estibaliz Santamaria (2009/09/30) 18 cámaras tejen una malla de vigilancia en San Francisco. *El Correo*.
- A.H. (2009/12/12) “Nadie controla las cámaras de San Francisco”. *El Correo*.
- Ainhoa de las Heras (2010/03/06) Los “Iker” contra los cacos. *El Correo*.
- EITB (2013) *¿Son necesarias las cámaras de seguridad en el barrio de San Francisco?*

Artikulu guztiak egunkari beretik ateratzearen arrazoi nagusia El Correo gaia gehien landu eta jarraitu duen komunikabidea dela da. Gainera, kriminalitatearekiko duen jarrera kontserbadorea eta poliziarekiko eta Bilboko udalarekiko duen hurbiltasunagatik diskurtso guzti hauek hobekien jasotzen dituen komunikabidea dela deritzot. Bestalde, EITB-ko bideoa hitzez esandakoaz aparte, gorago aipatutako zenbait pertsona eta instituzioen ordezkarien keinuak, ahots tonu aldaketa atzeman eta interpretatzeko aukera ematen du.

Dena den, kontuan izan behar da baita ere teknika honek badituela zenbait muga, haren jasotako testigantzen azterketan oinarritzen den heinean hauetatik haratago ezin dela joan. Hau da, lortutako datuetan aztertu nahi diren zenbait datu ez topatzea edo hauek erdizka



egotea (Juaristi, 2003: 220). Horrek agian analisi unitate hauen azterketa hankamotz uztea ekar dezake.

#### 4. Helburua

Laugarren eta azken helburu honetan San Franzisko eta Bilbo Zaharra auzuneetako biztanleen kameran, auzunearen polizializazioaren eta gentrifikazio prozesuaren inguruko diskurtsoak aztertu nahi dira, eta horretarako erabiliko den teknika elkarrizketa sakona izango da.

Miguel Valles-en hitzetan, elkarrizketa gure egunerokotasuneko beste ekintza batekin, berriktarekin antz handia du (Valles, 2007: 178), nahiz eta bere berezitasun propioak izan, esaterako, elkarrizketaren egituraketa eta berriktaren inprobizazioa, elkarrizketatu eta elkarrizketatzailearen arteko rol banaketa eta elkarrizketak berak aurretik dauzkan espektatibak (*Ibidem*: 179-180).

Horrela, elkarrizketa sakon mota ugari bereiz daitezke, eta kasu honetan elkarrizketa fokatua erabiliko dut. Valles-ek teknika hau definitzeko honen garatzaileak izan ziren Merton eta Kendall-i ematen die hitzak eta hauek botatako irizpideak botatzen ditu:

- Elkarrizketatuak egoera konkretu baten aurreak ezarriak izan dira (*Ibidem*: 184)
- Ikertzaileek egoera hori aurretik aztertu dute (*Ibidem*: 184)
- Elkarrizketa gidoi bat eratu egin da burututako eduki analititik (*Ibidem*: 184).
- Elkarrizketa elkarrizketatuak bizi izandako esperientzia subjektiboetan oinarritzen da (*Ibidem*: 184).

Flick-ek, aldiz, elkarrizketa fokatuak elkarrizketatuen iritzi subjektiboak errealitate "objektiboarekin" konparatzeko aukera ematen digula azpimarratzen du (Flick, 2004:89). Gainera, beste hainbat elementu botatzen ditu elkarrizketa mota honek izan behar dituen irizpideekin definizioa aberastuz:

- Norabide gabekia: hasiera batean egituratu gabeko galderak eginez lortzen da (erantzun oso zabala duten galderak) eta hauek pixkanaka pixkanaka gehiago konkretatuz (*Ibidem*: 90).
- Espezifikitate irizpidea: elkarrizketak elkarrizketatuaren sinbologia eta ikuspegi subjektiboa agerian utzi behar du, azaleko kontuetatik haratago joanez (*Ibidem*: 91). Hau konkrezio maila gorena da, elkarrizketatuari elementu zehatzen inguruan galdetzen zaiolako (*Ibidem*: 91).
- Zabaltasun irizpidea: Elkarrizketan zehar garrantzitsu bezala hartzen diren gai guztiak lantzen dira. Elkarrizketatuari gai berrien inguruan aritzeko aukera eman behar zaio, baina elkarrizketatzaileak gai horiek bideratzeko eta berak landu nahi dituen kontuak hitz egin ahala sartzeko gai izan behar da (*Ibidem*: 91).
- Sakontasuna eta testuinguru pertsonala: emozioei loturiko erantzunak azaltasunetik haratago joan behar dira eta pertsona beraren sentimendu eta bizipen sakonagoetan arakatu beharra dago (*Ibidem*: 91).



## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



Aurretik esan dudan bezala, elkarrizketa fokatua elkarrizketatuari askatasun maila bat ematen dio bere bizipenak, iritziak, sentipenak azalera ditzan, baina ikertzailearen partetik aurretiazko prestakuntza bat behar da elkarrizketa hori egituratu eta gidatu ahal izateko, eta horretarako tresna gidoia da.

Ez dago gidoirik erabiltzen ez duen elkarrizketa sakonik (Valles, 2007: 203). Gidoiak landu beharreko gaien garapen bat egiten du, sarritan hauek azpigaian banatuz (*Ibidem*: 204). Gidoiak ez ditu ez galderak ez erantzunak zehazten, gaien proposamenerako eskema baten ezarpena zehazten du, gero praktikan horien lanketa elkarrizketatzailearen aburuaren pean geratzen delarik (*Ibidem*: 204).

Horrela, ondoren azalduko dudan bezala, burutuko dudan elkarrizketa bakoitzarentzako gidoi bat prestatuko dut, kasu bakoitzaren berezitasunetan oinarrituz. Honek pertsona bakoitza bere partikularitateetatik heldu ahal izatea eta elkarrizketak egokiagoak, pertsonalagoak eta aberatsagoak izatea espero dut.

Elkarrizketatuak aukeratzeko orduan Valles-ek dio lehendabizi ikertu nahi den populazioa aurretik ikertu behar dela, haren berezitasunak ezagutzuz (*Ibidem*: 210). Kasu honetan, lehenago azaldu izan dudan moduan, honako ezaugarri orokorrak dituen populazio bat aurki daiteke: nahiko gaztetua dago eta etorkin tasa handiak aurki daitezke. Gainera, koefiziente sozioekonomiko ezberdinek gunearen marginalitateaz informazioa ematen dute (langabezia tasa handia, biztanleen kualifikazio maila baxua...).

Bestalde, lehenxeago azaldu berri dudan bezala, San Franzisko eta Bilbo Zaharra bezalako beste hiri batzuetako auzuneetan, non baita ere polizializazio eta kriminalizazio kanpaina bat aurrera ematen ari den, kolektiborik kaltetu eta erreprimituena gazteak eta etorkinak izan ohi dira. Lehengoak haien militantzia politiko posibleagatik eta besteak haien arrazializaziotik eratorritako diskriminaziotik.

Hori horrela izanda, bi horiek (adina eta jatorria) izango dira nire elkarrizketak zehazterako orduan erabiliko ditudan aldagai soziodemografikoak, nire proposamena horrela definituta geratuko litzatekelarik:

Pertsona atzerritara edo nazionalitate bikoitzduna $29 > x \geq 15$ urte	Pertsona atzerritara edo nazionalitate bikoitzduna $29 \leq$ urte
Bertan jaiotako pertsona $29 > x \geq 15$ urte	Bertan jaiotako pertsona $29 \leq$ urte

Dena den, indikadore guzti hauek metodologikoki onargarriak izateko lehendabizi hauek definitu beharra dago.

## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



Gazte pertsona baten definizioa EUSTAT-en estatistiketarik atera dut, izan ere haiek metodologikoki pertsona gazte bat 15 eta 29 urte bitarteko pertsona bat bezala definitzen dute<sup>2</sup>.

Pertsona atzerritara definitzerakoan aldiz INEko definizioan oinarritu naiz. Organismo honek atzerritarra Espainian etxebizitza familiar partikular batean bizi den, baina nazionalitate espainiarra ez duen pertsona da<sup>3</sup>. Bestalde, Atzerrian jaiotakoak ere hartuko ditut kontuan, izan ere, uste dut diskurtsoetan ez dela ezberdintasun handirik izango. INEk atzerrian jaiotakoa honela definitzen du: Bere jaioterriko herrialdetik at bere ohiko egoitza duen pertsona da, bere nazionalitatea edozein izanda<sup>4</sup>. Gainera, seguruenik zaila izango denez 15-29 urte bitarteko pertsona etorkin edo atzerrian jaiotako bat aurkitzea, atzerritarren eta atzerrian jaiotakoen seme-alabak ere hartuko ditut kontuan. Azkenik, adierazgarrienak diren nazionalitateak soilik hartuko ditut kontuan, afrikarrak eta hegoamerikarrak alegia, aztertu beharreko gunean populazio etorkin handiena dutenak baitira, gorago azaldu izan dudak bezala.

Lagina burutzeko erabiliko dudak teknika elur bolarena da, lehenago azaldu bezala. Laginketa teknika hau ikerketa teknika egin bitartean burutzen da: elkarrizketatuei ikerketan parte hartzeko prest egongo litezkeen pertsonen inguruan galdetzen zitzaizen eta haren erantzunekin lagina handitzen eta handitzen egiten da.

Egia da planteatutako elkarrizketen eskema ez dela handinahi handikoa, baina kontuan izan behar da ikerketa honetarako prest egon litezkeen pertsonaz aparte denbora muga bat ere badagoela eta horrek ikerketaren hedadura zedarritzen duela.

<sup>2</sup>: [http://www.eustat.eus/estadisticas/tema\\_369/opt\\_0/ti\\_Juventud/temas.html](http://www.eustat.eus/estadisticas/tema_369/opt_0/ti_Juventud/temas.html) webgunean eskuragarri

<sup>3</sup>: <http://www.ine.es/DEFIne/concepto.htm?txt=extranjero&c=4836&p=1&n=20> webgunean eskuragarri

<sup>4</sup>: <http://www.ine.es/DEFIne/concepto.htm?txt=extranjero&c=5267&p=1&n=20> webgunean eskuragarri

SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN:  
PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA,  
TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA





#### 4.EMAITZAK ETA ANALISIA

---

Emitzen aurkezpenerako lehendabizi behaketa etnografikoan zehar bizirikusi eta sentitu izandakoak kontatu egingo ditut. Bertan azaldukoak ez dira gertatu ziren moduan eman, ezta ere bertan azaltzen den ordenean, baina denak gertatu egin dira, eta batzuetan errepikatze tendentzia esanguratsu batekin. Nik egindakoa guztia esperientzia eta sentsazio guzti hauen kondentsazioa eta orden logiko bat ematea besterik ez da izan. Ondoren, kameran eta kartelen kokapenaren inguruan arituko naiz. Hau eta gero, hauen kokapena edo kokapen eza justifikatuko lituzketen autoritateen diskurtsoak aztertuko ditut diskurtso analisi baten bidez eta azkenik auzokideen esanak jasoko ditut, bi diskurtso hauen arteko alderaketa bat burutuz.

Cantalojas zubira heldu eta eserita zenbait beltz talde ikusten ditut. Batzuk berrikeran, beste batzuk egunkaria irakurtzen. Denak haien aurrean haiei zuzenean begira dauden bi kamerei arretarik eman gabe.

San Franzisko kalean barrena sartu eta nabaria da beste nonbaiten sartu naizela. Begi bistakoa lehen ez nengoen kale baten barruan sartu naizela, baina hain da aurreko egoerarekiko kontrastea hain handia hiriz eta guzti aldatu naizela iruditzen duen. Argi gutxi dago kalearen estutasun eta eraikinen altueragatik. Han hemenka ama batzuk ikusten ditut umeak eramateko kotxetxo batzuekin, zapidun emakumeak, binaka. Gizon magrebiarrak, argalak eta algaratsuak, badirudi beti dutela kalearen beste aldean dagoen norbait agurtzeko edo harekin hitz egiteko pultsio ezezagun bat.

Bat batean, lehenengo kamera. Hormari itsatsia, kalearen erdian, perpendikularki datorren hurrengo kalearen gurutzapenetik kalearen hasierarainoko tarte guztia ikusteko gai da. Kalearen bi espaloietara so egiten dut. Etorkinen komertzioak: fruta eta barazki denda magrebiarrak, denetarik saltzen duten denda txinatarrak, lokutorioak, zenbait jatetxe... et a hauen guztien artean denborak eta hezetasunak oraindik ezabatzea lortu ez duen kartel bat: "Joyeria". San Franzisko zaharraren aztarnak dudarik gabe.

Bailen kalera heldu eta Berebat jatetxe ospetsuaren horman bertan beste kamera bat dago. Fermin Muguruzak iraganean etorkinek euskara ikas zezaten helburu zuen lokal honi abesti bat eskaini zion. Gaur egun magrebiar baten esku dago eta berak kudeatzen du. Bere aurrean magrebiar gazte taldeak aurkitzen dira maiz. Droga saltzen ari dira. Haien ondotik igaro naiz eta batek "¿Quieres hachis, primo?" bota dit. Ez entzunarena egin dut.

Kaleak zeharo estuak dira. Ezin da bi pauso eman norbaitekin tupust egin gabe. Espero dut denbora luzez hemendik ibili eta gero inor jo gabe ibiltzeko abilezia irabaziko dela, bestela jai daukat. Nirekin jotzen diren pertsonen begirada sorbaldean nabaritzen dut eta are txikiago sentiarazten naute. Jertsearen txanoa jarri dut.

Kalea hain da estua ezen bertatik pasatzen diren polizia kotxe eta furgoneten burrunba belarrietan barrena doanean burua zulatzen dit. Hainbeste dira bertatik pasatzen direnak haien usain propioa kalean bertan utzi dutela, handik horrenbeste ibiltzeagatik. Izugarri handiak dirudite, nahiz eta logikoki badakidan kotxe eta furgoneta hauek beste lekuetakoak, hala nola,

## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



Abandon edo Deustun ibiltzen direnen berdin-berdinak diren. Hobe dut aurrera jarraitzea. Ez dirudi begira geratzeko leku atsegina.

Istilu bat dago nire aurrean. Harrobi kalearen aurrean (San Franzisko eta Gorte kaleak lotu egiten ditu) Ertzaintzaren kotxe bat dago. Emakume ijito bat polizia oihuka ari da. Ezin zaio gauza handirik ulertu, naiz eta gaztelaniaz ari den. Beste espaloian, Gorte kalera igotzeko eskilaren ondoan gizon bat dago Yogur bat jaten. Bizarduna. Itxuraz daraman arropa da daukan bakarra, eta erabilera handia eman diola dirudi, kolore garbirik ez du eta yogurta jaten ari den moduari begira haustarreen dabilen behi baten jarrera dauka. Eskilaretan bi gizon daude, eserita baino etzanda. Botata. Aurrekoaren antz handia daukate. Nagusiena dirudienari (bizarraren kolore txuriagatik) irribarre egiteko ahoa zabaltzerakoan hiruzpalau hagin soilik ikusten zaizkio. Gaizki zaharturiko Murilloren margolan famatu horretako bi mutikoak dirudite nonbait. Azkenean etzan egin dira. Eskortzoa. Eszena honen ondoan aurreko kotxearekin etorritako 3 ertzain aurkitzen dira, kalearen bi norabideetara begira. Haien begietan ez da espresio garbirik antzematen. Lanean ari dira.

Hernani eta Maiatzaren 2ko kaleak San Franzisko kaleko jarraipen bat dira goiko partean. Etorkinen taberna batzuk, beltz talde batzuk hauen kanpoaldean eserita hitz egiten...horretan txis isurien aztarna. Bi kale hauek lotzen dituen eta Bailen kalera heltzen den hirugarren kalean, Castillo generalaren kalean, taberna gehiago daude, eta beltz gehiago kale ertzean eserita aurreko espaloian eserita daudenekin oihu bizian hitzegiten. Kale hauen beheko partean ez dira etorkin hauen komertziorik. Hemen nahiko berriak diruditen taberna eta lokalak daude, estetika abanguardistadunak. Badaude baita ere auzoak jasandako aldaketa guzti hauei aurre egitea lortu duen dendaren bat, Hernani kaleko likore denda bat kasurako.

Mariaren Bihotzaren plazara heltzerakoan, Itxuraz bertan bizitza osoan bizi izandako lehenengo pertsonak aurkitzen ditut: Makildun bi agure. Inguruan dagoen mugimendu eta zaratarekin lekuz kanpo daudela iruditu zait momentu batez.

Plaza, baina, ez dago agure asko. Pertsona talde ugari daude. Beltz talde bat zuhaitz garaiek arratsalde sargoritsuetan eskaintzen duten gerizpean, bizpauru pertsona zahar han urrunean baita ere egon badaude, baina pertsona gehien gehienak ijitoak dira. Gazte batzuk txakur batekin jolasten eta mugikorarekin grabatzen, ume batzuk txirrindula hondatu batekin bueltak ematen eta baloi bati ostikoak ematen, eta haiei begira ziurrenik haien gurasoak direnak, umetxo txiki batzuekin. Eszenari begira geratu naiz, eta halko batean Bilbo Garbiko (Bilboko udalaren garbiketza zerbitzua) kamioi bat sartu da plazan. Eserleketan zeuden ijitoetako bat deitu du, eta behin haren parean zegoela, errieta bota dio aluminio latak zorura botatzeagatik. Ijitoak errieta lehenbailehen buka zedin arrazoia eman dio gogo txarrez. Kamioia urrundu egin denean barrez komeria lagunei kontatzen hasi da. Geroago, ertzain kotxe bat pasatu da kaletik, eta nire aurrean zeuden gurasoak, surikato batzuen antzera, haren norabidea begiradarekin jarraitu egin dute, kalean barrena desagertu egin den arte. Hauek guztiak agian De Certeauk deskribatzen dituen taktiken barnean (De Certeau, 2001: 401) sartuko liratzekelaren susmoa dut. Pertsona guzti hauek kanpotik etorritako disziplina eta kontrol mekanismo batzuen aurka aritzearen beharrean ikusten da (*Ibidem*: 401), ekintza eta keinu bakanekin (barreak, begiradak...) kontrol hori begiztatuz edo hark inposaturiko disziplinari uko eginez (*ibidem*: 401). Honetaz aparte, elkarrizketatu batek ijitoek plaza hartu izana nolabait haren gertifikazioa eragin du, baina haiei begira autodefentsa mekanismo bat bezala ikusia izan daiteke. Hemen argi eta garbi ikusten da ijitoek haien inguruko irudiak sortutako ezinegona euren alde erabili dutela, kanpotik etor daitezkeen erasoetatik babesteko (Cantos & Garcia, 2015: 220)



Kaletik aurrera jarraitu eta Aretxaga kalera heldu naiz. Zarata, egonkorra, patxadatsua... arraroa. Begirada batekin gezurra dirudi hau San Franziskoren ondoan dagoenik. Taberna ugari, diseinu modernoa, orain dela gutxi zabaldutakoak ziur asko. Eta bertan dagoen gendea, bai bezeroak bai jabeak ez dirudite aurreko kaleetan topatu ditudan jendea bezalakoa. Hasteko, denak txuriak dira, eta nahiko gaztelania zuzenean aritzen dira. Jende nahiko dago. Erlojua begiratu... arratsaldeko 6ak. Lanetik atera berriak seguruenik. Pertsona hauen guztiek dituzten dilatazioak, jazkerak, perforazioak eta tatuajeak harritu egin naute. Horietako batek hanka aurreko kaleko beltzen azala baino ilunagoa dauka. Belaunaz behera erabat tatuatu egin du nonbait.

Taberna horietako batera sartu egin naiz garagardo bat eskatzera. Prezioa are gehiago harritu egin nau. 1,80 Euro kaña bat. Asperen egin, eskatu eta gutxira zerbitzatu naute. Alde zaharreko edozein tabernatan zurito bat bezala salduko zidaten garagardo bat eman didate. Edan eta ospa egin dut bertatik.

Kalean behera egin dut eta Martzana Portura heldu naiz. Handik ibaiadarra eta alde zaharreko bista paregabea dago. Taberna gehiago eta kalean mahai eta eserkuetan aurrekoetan zegoen gendearen antzeko gehiago. Kale espaloian beltz batzuk perkusio instrumentu batzuekin. Oso gutxirarte espaloiauren aurrean zegoen eserleku batean esertzeko ohitura zuten, baina kendu egin zuten. Handik gutxira honen omenez satira moduan eskela batzuk hasi ziren agertzen inguruko horma eta faroletan. Batek daki nor idatzi zituen. tabernariak? Bezeroak? Bertan esertzen ziren beltzak? Auzokideak? Hauek, eserlekua bezalaxe, desagertu egin dira dagoeneko.

Martzana kaletik aurre eginez hiru pilareen plazara heldu naiz, San Franzisko, Miribilla eta Bilbo Zaharra kaleak batzen diren gunera. Gune hau, San Franzisko kaleko leku guztiak bezalaxe, kamera batez dago koroatua. Koro ia ikustezina, hura aurkitzea kostatu baitzait. Plaza honetan inguruan ospe handia zeukan taberna bat zegoen, Deustu Taberna. Orain dela urte batzuk izenez, diseinuz eta jabez aldatu egin zen eta orain "Peso neto" bezala ezagutzen da. Elkarriketatu batek esan zidan bezala, haien bizitza osoan Deustu taberna poteatzera joan izan diren agure batzuk tabernak jasandako aldaketa ikusi ostean, berriro bertaratuko ez zirela zin egin zuten. Nik dakidala, ez dira inoiz gehiago agertu.

Beste espaloian eserleku batean hiru magrebtar. Haien aurretik pasatzen den emakume oro begiradarekin biluzten ari dira. Behintzat nik horren susmoa daukat haien begi lizunak ikusiz. Aurretik eta atzetik, barreak, berriketa.

Gizon bat kale gurutzaketa honen iskin baten ari da hitz egiten. Gero eta ozenago ari da. Bat batean, kamerari begirada bat bota eta haren begiradatik aldendu egin da haren ikusmiratik at dagoen plaza batera joan da, han bere eztabaida jarraituz. De Certeauk azaldutako taktika baten aurrean nagoela uste dut. Gizon hori kontrolari ihesi egin du, batek daki kontziente edo inkontzienteki, baina kameraren begiradaren atzaparretatik hanka egin du. Estrategiak espazioa begiradarekin irakurtzen saiatu (De Certeau, 2001: 400) eta gizon honek alde egin dio bere portaera moldatuz (*Ibidem*: 401).

Hemendik Miribilla kalean gora Gorte kalera heldu naiz eta Aretxaga kalearekin iskin egiterakoan lokal bat ikusi dut. Jakin dudanez, bertan eguneko zentroetan dabilzaten etorkinak lan egiten dute, bizikletak konpontzen, hauek erreformatzeko helburuarekin. Gaur

# SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



egun bekatariak zigor lurtarra jasotzen jarraitzen dutela dirudi. Hauek herbereetako berpizkundetik eratorritako Water Huis-etan ematen jarraitzen direla dirudi baita ere.

Kalean aurrera jarraitu ahala San Franzisko kalearekin alderaketa bat egiteko adina ezberdintasun aurkitzen ditut. Batetik, ez dago hainbeste etorkin, kalea zabalagoa eta argitsuagoa, eta isilagoa. Kamerarik ez dut ikusten.

Tabernetara heltzerakoan zarata gehiago nabaritzen da. Jende gehiago dago kalean. Club-en ateetan zenbait emakume, prostitutak ziur asko, kalera begira daude. Horietako batzuk gizon nagusi batzuekin daude hizketan. Irribarreak. Auzokide batek esan zidan bezala, lehen gizon asko Gorte kaletik kotxearekin pasatzeko ohitura zuten, kalean zeuden prostitutak ikusi ahal izateko. Orain ordea ez dago lehen zeuden prostibulo adina. Ez da ia kotxerik pasatzen. "Hau ez da lehen zena" esaten dit.

Aurrera jarraitu ahala hasierako puntura iritsi naiz. Cantalojas zubian zeuden beltzak jada ez daude bertan. Iluntzen hasi da. Abandoko geltokira noa. Ahotsak itzaliz doaz. Kotxeen zarata nagusi da orain.

Hauxe izan da nire behaketaren kontakizuna, bertan bizitakoak eta ikusitakoak kontatzen dituen, baina badago baita ere nire kokalekutik aparte (kalea, espaloia, eserlekua) beste leku batzuetatik behatu daitezkeen ekintzak, istorioak. Kameretaz ari naiz noski. Hauen aurkikuntzarako eta kokapenaren azterketa egiteko beste behaketa bat egin nuen.

Hauexek litzateke San Franzisko osoan zehar aurki daitezkeen kamera eta kartelen kokalekua:

## **4.irudia: San Franzisko auzoko bideobigilantzia kameren, hauen kokapenaren inguruan ohartarazteko kartelen eta kalera begira dauden beste hainbat kameren kokapena.**



---

Gorri: Udalak instalatutako kamerak

---

Urdinez: Udalak instalatutako kamera bikoitza

---

Horiz: Kameren kokapenaren inguruan ohartarazten duten kartelak

---

Berdez: Kalera begira auzoan dauden

**Iturria: Lanketa propioa Google Earth-etik lortutako iruditik abiatuta.**

Lehen begirada batean ikus daitezkeen bezala, El Correok 2009.ko irailaren 30ean argitaratu zuen artikuluan azaltzen den bezala, Kamerek San Franzisko kaleko etengabeko ikuskaritza ahalbidetzen dute, honen punta batetik bestera baitaude (El Correo: 2009/09/30).Guztira,

## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



Auzune guztian 19 kamera daude, kamera bikoitza bakartzat hartzen baldin bada. San Franzisko kaleko ikuskaritza Cantalojas zubitik hasten da, non kamera bikoitz bat aurkitzen den (Kamera hau zutoin batez eta bata bestearen gainean aurkitzen diren bi kamerez dago osatua, mapan puntu urdin batekin irudikatua), Bilbo Zaharraren kalearen hasieratik. San Franzisko kalean zehar kamerak kale honen eta hau perpendikularki gurutzatzen duten kale guztien aurrean kokatzen dira oro har (Bailén, Maiatzaren 2a, Hernani, Arnomendi...) San Franzisko kalean kamera gehien kontzentratzen dituen gunek San Franzisko eta Mirasol Kondea gurutzatzen dituen gunea (hemen 3 kamera daude) eta San Franzisko eta Aretxaga kaleen gurutzapena (2 kamera) dira. Dena den, badaude ere San Franzisko kalean zehar inolako kaleren aurrean kokatzen ez diren kamerak. Hau guztiaz aparte, leku publikoen ikuskaritza bermatzen duten kamerak ere badaude, Mariaren Bihotza plazan dagoen kamera edota Miribilla, San Franzisko eta Martzana kaleak elkartzen diren plazatxoak. Honako honetan bi kamera daude. Bat plazatxoari begira eta beste bat Bilbo Zaharra kaleari begira.

Gorte kalean baita ere daude udalak instalatutako kamerak, baina hauek oso gunek zehatz batean daude kontzentratuak, eraikin bakar bateko bi ertzetan hain zuzen ere. Bi kamera hauetatik aparte beste hiru kamera daude eraikin honen ertzetan, baina ez dira udalak instalatutakoak bezalakoak. Dirudienez eraikin hau Telefonica-ren eraikin bat da.

Kamera hauetatik aparte, badaude baita ere San Franzisko kaleko Bilboko erreproduzioen museoaren sarreran beste kamera bat eta Olano kaleko apustu etxe baten sarreran beste bat.

Kartelen kokapena kameraren kokapenarekin alderatuta badirudi patroia ezberdin bati men egiten diola. Ez dirudi gunek kritiko edo sekurizatuaren baitan kokatzen direnik, hau da, San Franzisko kalean zehar eta kameraren ondoan (izan ere kartel hauek eremu zehatz bat kameraren bidez ikuskatua ari delaren oharra daramate). Kartelak kokaleku periferiko batzuetan kokatzen direla dirudi (General Castillo kalearen eta Maiatzaren 2aren eta Hernani kaleen gurutzapenetan, eta Mariaren Bihotzaren plazara begira). Dirudienez, San Franzisko kalean kamerak duten kokapena Gorte kaleen kartelek duten kokapenaren oso antzekoa dela: bi kaleen arteko gurutzapenetan, angelu guztietatik ikusgarriak direlarik. Bestalde, badaude kartelen kontzentrazio esanguratsu batzuk, esaterako, Vitoria-Gazteiz kalean 3 kartel aurki daitezke elkarren arteko oso distantzia txikira. Horren arrazoia Harrobi ikastetxea dela pentsatzea zilegi litzateke. Azken kontu hau aurrerago azalduko dut zehaztasun handiagoz.

Hau guztia esan eta gero, zenbait ondorio atera daitezke. Batetik, San Franzisko kaleko kamerak disziplinamendu eta zenbait portaeren disuasioa eragitea lukete (Contrahistoria, 2013:62). Lehen esan bezala, kamerak San Franzisko kaleko ikuspegi osoa daukate, punta batetik bestera, bertako leku publiko nagusia, Mariaren Bihotza plaza bera ere urratzera helduz. Dena den, bi kartel soilik aurki daitezke kale honetan, Mariaren Bihotzaren plazaren aurrean eta Aretxaga kalearen eta Bilbo Zaharra kalearen hasiera bitartean.

Kartelak dirudienez beste funtzio batzuk daukate, nahiz eta panoptikoaren logikarekin jarraitzen duten. Kartelek panoptikoak eragindako zaurgarritasuna (nondik begiratuak ari garen ere ezin dugu jakin, kartelek ez baitute begiratzen, begiratuak izan gaitezkeelaren aukeraren berri besterik ez digute ematen) agerian uzten dute (*Ibidem*: 63), kartelak oro har leku periferikoagotan kokatzen dira, eta zenbait lekutan kameraren ikusmirara heldu baino lehenagoko ohar bat bezala ematen dutela dirudi, leku ezberdin, berezi edo kritiko batean sartzen ari garela berri emailtzat. Funtzio gehigarri hau General Castillo kalearen eta Maiatzaren 2a eta Hernani kaleen arteko gurutzapenetan dauden bi karteletan ageri da.



## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



Gorte kalean karteak San Franzisko kaleko kameren kokapenaren logika antzeko bat mantentzen dutela dirudi (lehen esan bezala, bi kaleen arteko gurutzapenetan kokatzen dira, angelu ia guztietatik ikusgarri direlarik) . Baina nahiz eta panoptikoaren funtzioaren beste bertsio bat betetzen duten (efektu psikologiko disziplinatzailea) karteak ez dute efektibotasunik (hau da, karteak ez dute ikusten, baina kameren funtzio antzekoa daukate displizinatzeko eta portaerak moldatzeko orduan) Kale honetan kartelak jartzearen, eta kamerak ez jartzearen arrazoia San Franzisko kalean eta Gorte kalean ematen diren jarduera ekonomiko ezberdinengatik izan da motibatua seguruenik. San Franzisko kalea sekurizazio gordina ematen da, delitua bilatuz eta hau neutralizatzeko grinarekin, baina Gorte kalean gogorazpenak besterik ez dira aurkitzen. Ez dago inolako jarduerarik kalte egiteko ageriko nahirik. Udalarentzat dirudienez etorkinen komertzioak, droga salmenta... prostibuloekiko oso ezberdinak dira, azkeneko hau askoz jarduera ekonomiko errentagarriagoa eta balorizatua delako.

Azkenik, badago beste gune bat non karteak kokagune berezia duten, ez haien kokaleku zehatzagatik, baina haien kontzentrazioagatik, oso eremu mugatuan asko baitaude. Leku hori Harrobi ikastetxeko aurreko kalea eta inguruetan, Vitoria-Gasteiz kalea dira, ikastetxe honen aurrean guztira 3 kartel aurkitzen dira, eta hara begira dauden kamera bakarra ere ez, honegatik ondorioztatu daitekeelarik kartel hauen zeregin zehatz bat dutela. Seguruenik ikastetxe honetako ikasleak inguruko auzoetakoak dira, San Franziskokoak barne. Ikastetxe hau Lanbide Heziketazko zentro bat da, eta horrek auzune honen ikasketa maila txikiarekin lotura bat edukiko luke. Hemen kartelen ezarpena disziplina handiago eta kontzentratu baten dispositiboak liratezke, ondoan ikasten duten subjektu mota kontuan edukita (gaztea eta auzokoa).

Hau guztia azalduta, kameren kokapena justifikatuko litzuketen diskurtsoen bila abiatuko naiz, hau da, udaletik eta harekin harremanetan dauden hainbat instituzioetatik (eta noski, hauen guztien ordezkapen lanetan darabilten pertsonetatik) ateratako esanak, diskurtsoak, hitzak...

Metodologiaren atalean jorratu dudana bezala, zeregin honetarako diskurtso analisi bat burutu dut, zehazki San Franzisko auzoko kameren kokapenaren eta polemikaren problematika interes handiz landu duen egunkari baten artikulua eta iritzi artikuluen bidez, telebista kate batek gaiaren inguruan igorri zuen erreportai labur batekin batera. Hauen bidez autoritateek eta agente politiko eta polizialak oro har kameren kokapenaren eta hauen eraginaren inguruan ziotena aztertze asmoa zegoen, haiek botatako hitzen bidez kodifikazio bat burutuz (Flick, 230: 2004), eta hauetatik haien diskurtsoa(k) aztertuz (*Ibidem*: 230), bi teknika hauen arteko kateatze bat emanez, lehengotik lortutako datuak bigarrean erabiliko direlarik (Gallego & Rojas, 57: 2005).

Hauex behin zehaztuta, Aztertu diren pertsonen edo erakundeen nortasuna azaldu beharra dago hauek esandakoa aurkeztu baino lehen. Hauek liratezke:

- Iñaki Azkuna, San Franziskoko kamerak instalatu ziren garaiko Bilboko alkatea eta hauen instalazioaren bultzatzaile nagusia.
- Antonio Basagoiti: Kameren instalazioaren garaiko Bilboko Udaleko Alderdi Popularreko bozeramailea.

## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



- Txema Oleaga: Kameran instalazioaren garaiko Bilboko udaleko Alderdi Sozialistaren bozeramailea.
- Julia Madrazo: Kameran instalazioaren garaiko Bilboko udaleko Ezker Batuko bozeramailea.
- Eduardo Maiz: : Kameran instalazioaren garaiko Bilboko udaleko Hiritar Segurtasuneko zinegotzia (concejal de seguridad ciudadana). EAJ alderdikoa.
- Euskadiko polizien sindikatua (Sindicato vasco de policia, SVPE siglen bidez ezagutua)
- Hainbat ertzain. Haien ezizenez eta izenez bakarrik ezagugarriak (Llagú eta Angel)
- Juan Mari de los Ceros (2013. urteko irailaren 21ean Bilboko Udaltzainen subinspektorea).

Behin pertsona hauek aurkeztuta, haiek esandakotik kodigo batzuk lortu beharra dago. Hauek batez ere zenbait pertsonaiek botatako esaldi, esapide, edo hitzen arabera burutu ditut, hauen testuinguratze eta esanguragarritasunagatik. Kodigo edo analisi unitate hauek lortuta, emandako egoera, jokaera, hitzen testuinguru global bat eraiki beharra dago, ekintza guztiak osotasun logiko baten bidez ulertzera bidean.

Lortutako osotasun hori kasu honetan bi etapetan banatu daiteke, zeinaren arabera agentearen arabera gauza ezberdinak botatzen dituen. Egia da zenbait kategoria zeinak bi etapetan errepikatzen diren, testuinguratze berdinean edo ezberdinean, baina badaude baita ere beste batzuk bi aro horien desberdintasuna zehazten laguntzen dutenak.

Modu orokor batean azalduta, lehenengo etapa “delituaren aroa” deituko litzateke, eta bigarrena “Segurtasunaren edo esku hartzearen aroa”. Lehenengoan arazo bat planteatzen da, eta horrek sortzen dituen ondorio material edo hautemangarriak eta ondorio emozional, psikologiko eta subjektiboak plazaratuz. Bigarrean egoera hori aldatzeko esku hartze baten beharra ikusten da, eta alderdi materialean horren prozedura, ekar ditzazkeen ondorioak, eta esku hartze hori emateko bestelako proposamenak sartuko liratezke, eta alderdi emozionalean agentzia horrek ekarriko lukeen ondorio psikologikoak, antagonismo baten baitan aurkezten diren duten bi subjektuen artean (gaiztoak eta onak). Honetaz aparte dikotomia horretatik haratago konplexutasun handiagoa erakusten bestelako ikuspegiak planteatzen dira (konfidentzialtasun eta intimitasunaren problematikak), hauei nolabaiteko erantzun teoriko bat ematen zaielarik.

Aztertutako guztietatik argitaratzen lehena izan zen artikuluan, 2008.ko otsailaren 22koan hain zuzen ere, Azkuna alkateak aurre egin nahi zaion arazoaren diagnostiko bat burutzen du, San Franzisko auzoan bizi den segurtasun ezazko egoera, haren zenbait sintoma azalduz,( delinkuentziak azkenaldian izan duen igoera) eta horren dakartzan zenbait ekintza nahiko modu zuzenean azalduz:

*"Nadie quiere ir por la calle y que le roben la cartera, ni que le asalten en casa, ni que alguien le saque una navaja y, mucho menos, una pistola"* Iñaki Azkuna, 2008. Urtean Bilboko alkatea (El Correo 2008/02/22).

Hemen ikus daitezkeen bezala, alkateak arazoaren determinazio materialak agerian utzi ditu askok errepikatzen ohi dituzten hitzekin batera ( Juan Mari de los Ceros udaltzainak, 2013.urteko irailaren 21ean EITB2 kate publikoan igorritako 60 minutos programan baita ere delinkuentzia eta lapurketa (robo) hitzak erabiltzen ditu San Franziskon ematen den ekintza deliktiboen deskribapena egiterako orduan, beste hainbat esapide eufemistikoekin batera,

## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



“problema”, esaterako). Ertzainek haratago doaz eta lapurketetaz aparte lapurketa bortitzen inguruan (robo con violencia) (El Correo 2010/02/13) hitzegiten dute. Honetaz aparte, garaiko Bilboko udaleko Alderdi Popularreko bozeramailea, Antonio Basagoitik beste hainbat ekintza aipatzen ditu, Kasu honetan Alderdi honek Miribillan kamerak jartzearen aldeko proposamenaren inguruan hitz egiten jabetzaren aurkako delituak (delitos contra la propiedad) eta prostituzioa (Zehazki prostitutak eta proxenetak kalean ikusiak direla eta) aipatzen ditu kamerak jartzea justifikatzeko (El Correo 2008/02/26). Esanguratsua da Alderdi Popularra izatea prostituzioa kameren kokapena justifikatzeko erabiltzen duen alderdi bakarra izatea. Gainontzekoentzat ez dago delituen eta prostituzioa harremandu beharrik.

*«El problema de Miribilla no es de delitos, sino de prostitución»* Iñaki Azkuna (El Correo 2008/02/29)

Delitu eta delinkuentzia hau guztiari aurpegi bat jartzekotan berriro ere Iñaki Azkuna dugu behatzarekin zuzentzen duena, nahiz eta oso modu indeterminatuan:

*«en época de crisis los delitos aumentan, y de hecho, han subido en toda España los robos, con o sin violencia. Tenemos que estar muy preparados y esperamos que estas cámaras sirvan para detener ladrones y gente que tiene la violencia por bandera»* Iñaki Azkuna (El Correo ,2009/09/30) (Azpimarratuak nireak dira)

Ikus daitekeen bezala, Alkateak ez du kolektibo zehatz baten aurka egiten, etorkinak, gazteak edo beste nolabaiteko pertsonaren portaera agerian utziz. Bera ekintza deliktibo horietan zentratzen da pertsonak deskribatzeko orduan, horrek nolabait askoz interpretazio zabalago bat egitea ahalbidetzen duelarik. Ertzainek ere badute pertsona hauek kalifikatzeko modurik. “Llagú” ezizenez ezagututako ertzaina, El Correok argitaratutako 2010eko otsailaren 10ean argitaratutako aleko artikuluan delitu hauek guztiak burutzen dituzten pertsona hauek “ Gaizkile” (los malos) deitzen ditu, edo horrela uste da, izan ere ez da artikuluan oso argi geratzen izendatzeko esapide hori ertzainak botatzen duen edo El Correoko kazetariak erantsitakoa den. Hobe esaldia bera jartzen badut:

*«Las cámaras han quitado muchos robos con violencia, aunque (los 'malos') siguen pensando que no graban»* “Llagú” ezizenez ezagututako ertzaina (El Correo 2010/02/10)

Esaldian ikusten den bezala, ertzainak ekintzaren subjektua ez du argitzen, eta inkognita bat da parentesi artekoa ertzainak beste momentu batean botatakkoa den edo gero edizioan kazetariak erantsitako zerbait den.

Behin alderdi situazional eta materiala azalduta, egoera horrek guztian sortzen dituen ondorio psikologikoak azaltzeko ordua heldu da.

Horretan gehien tematu izan dena Basagoiti izan zen, batez ere Miribilla auzoan kalean kamerak jartzearen aldeko kanpaina. Bere esanetan auzokideak “beldurra zeukaten” (El Correo 2008/02/27). Eduardo Maizi, garaiko Bilboko udaleko hiritar segurtasuneko zinegotziari eginiko elkarrizketa batean (El Correo 2008/09/21), Hirian ematen zen ustezko kriminalitatearen igoeraren inguruan galdetuta, zinegotziak dio zenbait krimen puntualek inseguritate sentazioa eman dezaketela. Azkenik, lehen aipatutako EITB2 katean igorritako programan, Juan Mari de los Ceros Bilboko udaltzainen subinspektoreak San Franzisko auzoko segurtasun ezazko klima eta kameren kokapena bera lotu egiten ditu, lehengoak bigarrenengoaren eskaria suposatu baitzuen udaltzainaren esanetan:



*“ Las cámaras se pusieron en San Francisco porque en ese momento era la zona donde mayor demanda había, porque había bastante delincuencia, había muchos robos que se producían, e incluso no porque se producían en el hecho, sino que robaban en otras zonas y acudían allí a reunirse y a hacer el reparto, en fin...”* Juan Mari de los Ceros, Bilboko udaltzainen subinspektorea (EITB (2013) *¿Son necesarias las cámaras de seguridad en el barrio de San Francisco?*).

Bigarren etapa, “segurtasunaren aroa”, delinkuentzia eta ekintza deliktibo horien aurkako esku hartzearen bitartez ezaugarritzen da. Honen esapiderik karakteristikoena Azkunari egozten zaion “Guerra al navajero” litzateke (El Correo 2008/02/23). Honen bidez alkateak arestian deskribatutako egoera horren aurrean zenbait ekintza planteatzen du, bere partetik Antonio Basagoitik kanpaina honetan alkateari bere laguntza emateko prest agertzen delarik (El Correo 2008/02/26). Kanpaina honen barnean azaltzen diren ekintzak besteak beste jada pasadan urtean hasitako susmagarriei eginiko miaketak (cacheos a sospechosos), bideovigilantzia eta barne ministroari arma zurien arauketa aldatzearen alde egitea (El Correo 2008/02/23). Alkateak, Alderdi popularraren laguntzarekin bultzatutako ekintzek zenbait kritika jaso dituzte. Txema Oleagak, garaiko Bilboko Udaleko PSOE alderdiaren bozeramaileak, kameren instalazioak Bilbo estatu polizial batean bihurtzea suposatuko lukeela dio (El Correo 2008/02/26). Ildo beretik, Julia Madrazok, EBko bozeramaileak kamerak biztanleria kriminalizatzeko saiakera bat bezala ikusten du (El Correo 2008/02/27). Bere partetik, SVPetik iskin bakoitzean kamerak jartzea “erantzun soziopolitikoekin” batera etorri behar dela diote, bestela delituak egiten dituzten horiek beste nonbaitera joango direlako (El Correo 2008/02/29).

Zenbait urteren ostean, kamerak izandako eragina deskribatzera bidean, Udaltzainak dio kamera horiek delinkuentziaren jaitsiera bat suposatu dutela dio (EITB2 2013/09/21). “Llagú” ertzainak baita ere dio kamerak lapurketa bortitz (robos con violencia) asko saihestu dituztela (El Correo 2010/02/13).

Esku hartze honek izandako harreraren azalpen bat behin egin dagoela, honek sortutako efektu psikologikoen deskribapenera pasatzeko ordua da. Hauek hiru ataletan sailkatu daitezke, eta hauek aurretik azaldutako dikotomiaren bidez burutzen da (arestian aipatutako gaizkileak eta besteak). “Gaizkileengan” kamerak efektu jakin batzuk eragitea espero da, besteengan efektu horiek emango ez direlarik “gaizkileak” ez direlako. Bi mutur hauen artean anonimotasunarekiko kezka agertzen da, bi aspektu hauen arteko bisagra burutzen duelarik.

“Gaizkileengan” eragindako efektuen artean, Basagoitik, prostituzioaren aurka Miribillan instalatu nahi zituen kameren efektuen artean hauek proxenetak deseroso sentitzea eta kikiltzea eragingo zituela zioen (El Correo 2008/02/29). Juan Mari de los Ceros udaltzainak San Franziskoko kamerak disuasio efektu bat dutela dio, eta horrek ekintza jakin bat egitekotan pertsonak kikiltzea (retraer) eragingo lukete. Bere esanetan, kamera bat egotekotan lotsatu egingo (Se van a cortar más) dira (EITB2 2013/09/21).

Hauexek dira kamerengatik kezkatuak egon behar direnak, eta haien efektuak kontuan hartu behar dituztenak, baina zeinentzat ez du horrelakorik egiten? Basagoitiren esanetan, pertsona zintzoek (personas honestas) ez lukete zeren beldur izan behar (El Correo 2008/02/26). Juan Mari de los Cerosek bere aldetik dio ezkutatzeko ezer ez duenak ez duela

## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



ezerren beldur izateko arrazoirik. Bestalde, baita ere dio kameren instalaziotik mundu guztia askoz seguruago sentitzen dela, babestuagoa sentitzen delako (EITB2 2013/09/21).

Azkenik, bi alde antagonikoen planteamendutik haratago doan beste puntu baten inguruan hitz egin beharra dago, eta hori kamerek antza urratuko luketen anonimotasunarekin dago erlazionatuta. Honen inguruan lehendabizi zalantzak planteatu zituen pertsona Eduardo Maiz hiritar segurtasuneko zinegotzia izan zen. Bere esanetan, kameren instalazioaren inguruan zalantzak izan zituen pertsonaren intimotasunaren aurka joango zela, eta zorrotzegi jokatzeko ari ote ziren pentsatu zuela deklaratu. (El Correo 2008/02/29). Baina honen aurrean Azkuna alkateak irmoki bere zinegotziaren aurka egin zuen kameren instalazioa aholkatzen zuen kriterio teknikorik txosten polizial bat bazegoela argudiatuz (El Correo 2008/02/29). Urte eta erdi geroago, kameren inguruko lehenengo balorazioak egiterakoan, alkateak esan zuen konfidentzialtasunarekin eta auzokideen aurpegiekin oso zuhurrak izango zirela (El Correo 2009/09/30). Hauexek izan ziren bere hitzak:

*«seremos muy serios con la confidencialidad y con no predicar la cara del vecino» Iñaki Azkuna (El Correo 2009/09/30)*

Hauexek izan dira Bilboko udaletxeko kargu publikoetatik, poliziatik, zinegotzietatik... jasotako hainbat eta hainbat deklarazio, haien diskurtso egituratu bat sortzeko adina balioko dutenak. Hauek guztiak, ordea, ez dute zerikusirik auzokideek pentsatzen dutenarekin. Ondoren ikusiko den bezala, bi kolektibo hauen arteko distantzia diskurtsiboa zeharo handia da, auzokideen artean dauden ezberdintasunak egon badaudela kontuan izanda. Elkarrizketetan kameren inguruan galdetzeaz aparte gentrifikazio prozesuari buruz eta auzoaren eta instituzioen (udala, polizia) arteko harremanari buruz ere galdetu egin zaie.

Elkarrizketak aztertzen hasi bezain laster ikus daiteke nola bi diskurtso mota desberdintzen diren: bertako auzokideena batetik, eta atzerritarrena bestetik. Sarrera gai bezala elkarrizketatu guztiei San Franzisko auzoari buruz pentsatzerakoan burura etortzen zaizkien pentsamendu, hitzen... inguruan galdetu nien, eta oso esanguratsuak dira bi taldeek emandako erantzunen arteko ezberdintasunak. Bertakoak auzoan somatu daitekeen multikulturalitatea aipatzen dute, eta baita ere haren asoziazionismoak sortutako auzo ezkertiarren irudia. Bestalde, auzo beldurgarriaren estigma badagoela aitortu egiten dute droga salmenta eta lapurketengatik. Gainera, errenta baxuak nagusi direla diote. Atzerritarrek, haien partetik, San Franzisko auzo marginatu bat dela diote, eta delinkuentzia aipatzen dute haren ezaugarri nagusitzat. Honaino nahiko antzekoak dira bi diskurtsoak, baina atzerritarrek bertan bizi diren pertsonen zaugarritasunari erreferentzia egiten diote, esanez bertara bizitzera doazen etorkinak bertan seguruago sentitzen direlako diotelarik, han haien egoera berdinan daudenean elkartu daitezkelako. Hemen, berriro ere bizirauteko beste taktika baten aurrean aurkituko gintezke, estrategiak kolonizatutako espazioan barrena euren lekutxo topatuz eta kolektiboki defendatuz (De Certeau, 2001:401).

Instituzioen eta auzoaren arteko harremanari buruz aritzekoan ezberdintasunak areagotu egiten dira. Bertakoak auzoaren eta udalaren arteko erlazioaz aritzen dira: Azpiegitura gabezia salatzen dute, eta auzoko talde koordinadorak esaten duenez udalak jaramon ez egitea... Lehenengo elkarrizketatuak, 29 urte baino gutxiagoko bertako gazte batek, honela planteatzen du:



*“El ayuntamiento lo que lleva haciendo es típicos proyectos de estos de los planes de urbanización y de rehabilitación del barrio, y yo que alguna vez he asistido a las asambleas de la coordinadora de grupos de San Francisco, Zabala y Bilbao la Vieja, de todo lo que se habla en esas asambleas, de todo lo que serían las ideas del barrio el ayuntamiento pasa olímpicamente del tema (...) y el ayuntamiento lo que da prioridad para arreglar y para hacer son las ruinas de la plaza del Corazón de María. Entonces, ha priorizado cubrir unas ruinas para poder sacar y poder hacer visitas guiadas y poder sacar tela, que arreglar el barrio.”*

Hemen udalaren intentzioen jarraipen bat ikusten da. Zeintzuk diren bere interesak, zer konpondu, zer utzi bertan behera... Azken finean estrategia baten jarraipena burutzen ari dira, auzokideen interesekin bat ez datozten ekintzen inguruko mapa bat sortuz.

29 urte baino gehiago eta bertan jaiotako elkarrizketatuak auzoan zehar udalarekiko dagoen sentipenez hitzegiten du. Haren esanetan, auzoan udalaren ekintzen inguruko nekea zabaldu egin da:

*“Pues un cansancio generalizado, porque siempre ha habido necesidades. Si es lo de siempre...O sea, ha cambiado la época, han cambiado las necesidades, porque la gente también va cambiando por el tiempo, pero las necesidades de siempre (...) yo recuerdo que siempre se le pedían cosas, y al final actúan por presupuesto”*

Hemen baita ere udalaren estrategia baten jarraipena egiten ari dela dirudi, haren interesak maskaragabetuz (actúan por presupuesto).

Atzerritarrak aldiz, instituzioen eta auzoaren arteko harremanaz hitz egiterakoan ez dute udalaren inguruan hitzegiten, poliziaren inguruan baizik. Auzoan poliziak duen presentziaren, portaeren, jarreraren... berri ematen dute. Esaterako, poliziak noizbehinka ekintzaren bat burutzen duela dio 29 urte baino gehiagoko atzerritarrak, baina ez dutela delinkuentziaren aurkako behin betiko kolpe bat burutzen (honi buruz hitzegiterakoan “delinkuentziaren garbiketa” esaten du). Gatazkaren bat dagoenean soilik agertzen da. Portaera honek, poliziaren noizbehinkako agerpena, poliziaren agerpena bera legitimatzea bilatzen du, etengabeko salbuespeneko egoera bat sortuz (Cantos & Garcia, 2015: 180).

Aurrekoarekin jarraiki, atzerritarrek ertzaintza eta kameren beldur handirik ez dagoela azpimarratzen du, eta ondoren kameren inguruan oso komentario esanguratsuak botatzen dituzte: oso kalitate txarreko irudiak igortzen dituztela eta delinkuenteak ez dietela inolako beldurrik (horrek azalduko luke kameren aurrean droga saltzen duten gazteen lasaitasuna). Hala ere, itxurazko egoera baketsu hau edozein momentuan poliziaren partetik hautsi daiteke haren boterearen erabilera egiten badu. Kasu horretan denek dakite ez direla aurrean egon behar. Kasu honetan argi eta garbi ikusten da egoera lasai honen azpian botere harreman bortitzak daudela eta azaleratzerakoan denbora luzez landutako kalearen disziplinamendua praktikara eramaten da (Contrahistoria, 2013: 62).

Bestalde, kamerak inoiz deliturik argitu ez dutela aitortu egiten du 29 urte baino nagusiagoa den atzerritarrak. Harritzekoa da kameren eta poliziaren inguruan dakiena. Begi bistakoa hau guztia bere azaletan edo gertuko norbaitek bizi izan duela. Pertsona honek kamerak ezer egiten ez duten “mamuk” (fantasmas) bezala deskribatu egiten ditu, begirada errepresiboa kale apaingarri batera murriztuz (Ruiz Chasco, 2014: 308).

Bertakoak aldiz kameren inguruan oso ikuskera ezberdina dute. Hemen berriro ere Udalaren interesak ikusten dituzte, eta kamerak jartzearen arrazoiak galdetuta denetarik

## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



ateratzen da: auzoko agureak politikoki irabazteko jokaldia, mundu guztia kontrolatuta izatearen nahia...29 urte baino gehiagoko bertako elkarrizketatuak esaten duen bezala:

*“Las pusieron (Kamerak) por el tema de la seguridad ciudadana ¿No? Como disculpa del ayuntamiento para tenernos controlados a todos.”*

Bertako elkarrizketatuak kamerak izan zuten harrera txarraz hausnartu egiten dute, eta alde zaharreko eta San Franziskoko segurtasuna kudeatzeko eren arteko alderaketa egiten dute udalak auzoa nola ikusten erakusteko. Haien esanetan, alde zaharrean segurtasuna polizien bidez bermatzen da, eta San Franziskon kamera batzuen bidez. Auzokideen eskaera polizia gehiagorena zen, eta horren ordez udalak kamera batzuk bakarrik jarri zituen, hau da, haien ustez efektibotasunik gabeko neurri bat. Bestalde, kamerak “arazoa” (delinkuentzia, drogen salerosketa...) konpontzen ez dutela azpimarratzen dute, eta horren adibidetzat arestian aipatutako gaztetxo droga saltzaileak aipatzen dituzte.

Amaitzeko, gentrifikazioaren inguruan galdetu zaie, eta elkarrizketa horretara bideratu ahal izateko gaia zuzenean atera gabe, kameraren kokapenez behin hitzeginda kameraren kokapen ezaz (gentrifikazio prozesu bat jasaten ari diren eremuek, Aretxaga kalea, Martzana kalea... ez baitutuzte kamerarik) hitzegitea proposatu nien, eta harritu egin zidan denek, bai bertakoek bai atzerritarrek kamera izkutuen inguruan aritzea. Bertakoek haien ebidentziarik ez zidaten eman, zurrumuruetan oinarritutakoak besterik ez. Haien esanetan, San Franzisko guztian zehar egongo liratezke kamerak, batzuk agerian eta beste batzuk ezkutaturik, jokamolde honen atzean baita ere udalaren estrategia elektoralista egongo litzatekelarik. Dena den, hemen argi eta garbi ikus daiteke panoptikoaren irudia erabatekoa dela, eta pertsona hauetan nolabaiteko ezinegona sortu duela. Ez dakite kamerarik dagoen, are gutxiago non dauden, baina zalantza horrek euren bizimodua baldintzatu egiten du erabat, udalarena erabaki elektoralista izateaz gain, biopolitiko izan zelako baita ere (Contrahistoria, 2013:63).

Atzerritarrek baita ere kamera ezkutuen inguruan aritzen dira, baina hauek, aurrekoak ez bezala kamera hauen kokapenez aritzen dira, ebidentzia kontretuak emanaz. Esaterako, Maiatzaren 2ko kalean kamera ezkutu baten berri eman zidan 29 urte baino nagusiagoa den atzerritarrek.

Gentrifikazioaren gaira zuzenean sartuz, bertakoek aho batez diote auzoan gentrifikatzen ari dela. Biek agente gentrifikatzaileak nortzuk diren antzemateko gai dira, biek kanpotik datorren gendea (auzokoak ez direnak, alegia, ez dira etorkinetaz ari) eta auzoan dagoen errenta mailarekin bat ez datorren gendea direla diote. 29 urte baino gehiagokoak esaterako, pertsona hauek auzoarekin bat ez egitea (no concuerdan) leporatzen die, eta udalak laguntzak ematerakoan hauek denak eramaten dituztela argudiatzen du, gentrifikazioa eta udalaren arteko harremana azaleratuz. Pertsona honen arabera, prozesu guzti honen helburua kale hauek Chueca batean bihurtzea da, hau da, errenta maila esanguratsu bat eskatzen duen kontsumo sofistikatu bateko gunea. Hau guztiaren aurrean, pertsona honek gentrifikazioaz hitz egin beharrean espekulazioaz hitz egin beharko genukeela azpimarratzen du, prozesu honen nondik norakoak ikusteko gai delaren seinale.

Atzerritarrek, ordea, kamera ezkutuei buruz hitzegiterakoan ez dira gai hauen agerikotasunaren inguruan hausnarketa bat burutzeko gai, eta ondorioz ezinezkoa da gentrifikazioari buruz hitz egitera pasatzera. Hau seguruenik prozesu hau euren bizitzarekin inolako zerikusirik ez duelaren seinale izango da, eta horregatik ez diote inolako garrantzirik ematen, haren berri ere ez ez dutelako.



Hau guztia ikusi eta gero, aztertutakotik hainbat ondorio atera daitezke.

Lehenengoa erresistentziazko taktikei dagokie. Behaketa etnografikoaren bitartez ikusi ahal izan da nola bertakoek euren espazioaren kolonizazioari aurre egiteko zenbait jokamolde eta jarrera azaltzen dituzten (De Certeau, 2001: 400). Horren adibide dira ijitoek Mariaren Bihotzeko Plazan azaldutako jokabidea, udal garbiketa zerbitzuko langileak botatako errietari barrez erantzutea, eta poliziaren presentzia arretaz jarraitzea haren intentzioei buruz ez dakitelako. Azpimarratzekoa da plaza honetan ikusitakoak jarrera kolektiboak direla. Lehenengo kasuan, gazteak jasotako errieta bere lagunekin batera arindu egiten du barre batzuekin, eta familia bere inguruak ikuskatzea baita ere defentsa mekanismo bat bezala ikusia izan daiteke, kamerak ezarritako behaketa zurrinari behetik beste begi batzuk azaltzen direlarik honi aurre egiteko.

Gainera, ijitoek plaza haien gunetzat hartu izana isolamendu boluntariorat hartua izan daitekeen bezala, haien ongizatea bermatzeko jarrera baten isla izan daiteke baita ere, izan horrela, euren den gunek bat dute, behaketa eta disziplinari zaugarri dena, bai, baina aldi berean espazio antzu batean gunek propio bat izateak konkista bat suposatzen du, eta seguruenik haien talde identitatearen parte bihurtu dute plaza hura, panoptikoak inposatzen duen espazioaren uniformizazioaren aurkako erreakzio bezala (Contrahistoria, 2013: 62).

Espazioaren ikuskera bizi honekin alderatuz udalak espazioaren inguruan duen kontzepzioa eta bertan bizi diren pertsonen pertzepzioaren ideia bat egin gaitzke haren kontrol eta disziplinarako dispositiboek duten kokapenagatik. Batetik, San Franzisko kalean etengabeko bigilantzia bermatuta egoteak argi eta garbi erakusten du udalak gunek horren sekurizaziori begira dituen planak. Honi bertatik pasatzen diren poliziak gehituz kanpora begira auzo marginal eta arriskutsuaren irudia sortzen du. Honek espazio hau heterotopia bezala kalifikatzeko arrazoiak ematen ditu (Foucault, 1999: 24). Beste gunek batzuetan beste mota bateko bigilantziaren aldeko apustua egiten da, esaterako Gorte kalean eta Harrobi kaleko ikastetxean, non kamerak egon beharrean kartelak dauden.

Bestetik, Bilboko autoritateen diskurtsoak badute zerikusia esaterako Lavapieseko auzoko kameraren instalazioarekin bat zetozen instituzio eta autoritateekin zenbait aspektutan, esaterako, kamerak delinkuentziaren aurka aritzeko direla (Ruiz Chasco, 2014: 312), disuasio tresna bat direla eta azken finean hau guztia bertako komertzioari mesede bat egiteko egiten dela (*Ibidem*: 319), baina ez da hainbeste aurkitzen Bilboko kasuan delitu horiek guztiak kolektibo sozial jakin bati edo batzuei leporatzeko tendentzia (*Ibidem*: 319). Bilboko kasuan ez zaie ez gazteei, ez etorkinei (*Ibidem*: 319) errua botatzen. Kasu honetan kalifikatibo zabalagoak erabiltzen dituzte, lapurrak edo gende bortitza esaterako. Hala ere, nolabait badago bi kolektibo hauen kontrola ezartzeko grina, arestian aipatutako bi xehetasunengatik: San Franzisko kaleko kamerak, non bertatik ibiltzen diren pertsona guztiak atzerritarren diren, eta Harrobi kaleko ikastetxea, non kameraren presentziaz ohartarazten duten kartel ugari dauden, nahiz eta inguruan kamerarik ez egon. Dударik gabe bi neurri hauek bi kolektibo hauen disziplinamendua eta ikuskaritza du helburu (azken hau batez ere San Franzisko kaleko kasuan) (Contrahistoria, 2013: 63).

Elkarrizketatuen artean, arestian esan bezala, bi diskurtso desberdintzen dira: bertakoena eta atzerritarrena. Bertakoek auzoari buruz hitz egiterakoan hitz positiboak (multikulturalitatea, "auzo gorria"...), zein konnotazio negatibokoak erabiltzen dituzte (droga, delinkuentzia,



## SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN: PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA, TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



estigma...). Bestalde, instituzioen inguruan hitz egiterakoan beti udala aipatzen dute eta hark auzoan daukan parte hartze eza salatu egiten dute. Udalaren irudia behin eta berriro agertzen da bai kameren inguruan bai gentrifikazioaren inguruan hitzegiterakoan, ekintza hauek guztien atzean estrategia politiko, elektoralista eta ekonomiko bat antzemanaz, eta haren jarraipen bat egiteko gai ikusten dute euren burua. Gainera, San Franzisko auzoaren egoera Bilboko beste gune batzuekin konparatzeko joera dute, batez ere alde zaharrarekin. Laburbiltzeko, esan daiteke bertakoen diskurtsoa *kanpora* begirakoa eta *udalaren* planteamenduen aurkakoa dela.

Aldiz, atzerritarrek beste modu oso ezberdin batean azaltzen dute euren egoera. Auzoari buruz hitz egiterakoan bertakoek bezalako hitzak erabili beharrean (multikulturalitatea, drogak, delinkuentzia...), aspektu guzti hauek haien kontu jartzen dituztela dirudi. Esaterako, multikulturalitate soilaz hitz egin beharrean, etorkinen egoera intimo eta zaurgarriaz aritzen dira, itxuraz bertakoek somatzen duten bizimodu hori sentimendu eta bizipen konketuagoekin betez. Hau guztia kameren eta poliziaren inguruan hitz egiterakoan ere somatu egiten da (atzerritarrek udalari eta haren interbentzioei buruz hitz egiterakoan poliziarri, eta hark auzo barnean burutzen dituenaren inguruan aritzen baitira). Polizien jokamolde, jarrera eta haien irudiari buruz aritzen dira, kasu honetan poliziarri burutzen dioten jarraipena agerian utziz. Kameren inguruan hitz egiterakoan antzeko zerbait agertzen da. Bertakoekin hitz egiterakoa beti udala eta haren nahiak agertzen dira, baina etorkinak kanpora begiratzen egon beharrean kameren funtzionamenduaz, haien kalitateaz, eraginkortasunaz... luze darabilte. Ezagutzen ez dituen edonork haiek instalatu dituztela esango luke. Izugarria da horren inguruan daukaten jakituria, seguruenik hori guztia frogatzeko gertuko esperientziak bizi izan dituztelako. Honekin jarraiki, kamera izkutuen kontuaren inguruan bertakoen informazio kokatugabea baino zertxobait gehiago esaten dute, kamera horietako baten presentzia konfirmatuz. Gentrifikazioari buruz haiekin hitz egitea ezinezkoa suertatu egin da, seguruenik ez dutelako prozesu hau haien bizi esferaren barne kokatzen. Diskurtso honen sintesi bat egitera aldera, badirudi haien diskurtsoa auzora, *barnera* dagoela begira eta udalaren ekintzez baino, *poliziaren* ekintzez kezkatzen direla, horixe baitira azken finean kontrolaren atzamarrak leku sekurizatu konkretu honetan.



## 5. ONDORIOAK, ZUZENKETA ETA AUTOKRITIKA

---

### ONDORIOAK

Ikerketaren puntu honetan orain arte lortutako azterketa teoriko eta praktikoaren arteko uztarketa egin beharra dago, hauen arteko loturak behingoz zehaztuz eta azalduz.

Lehendabiziko ondorioa marko teorikoan azaldutako heterotopia kontzeptuarekin du zerikusia, eta bertan San Franzisko auzunean izan ahal zituen ezaugarriekin. Marko teorikoaren azken aurreko atalean, heterotopia kontzeptuaren lur hartzearen saiakeran, San Franziskon aurki daitezken kontzeptu honen hiru ezaugarri aipatu nituen: Funtzio aniztasuna (Foucault, 1999:22), kanpoaldearekiko zeregina (*Ibidem* : 24) eta praxiaren bidez aldatzearen aukera (*Ibidem* : 21).

Funtzio aniztasun hori (leku sekurizatuak eta “askeak”, ikuskatuak eta gentrifikatuak) ez dirudi marko teorikoan planteatutako modu berdinean agertzen direnik. Lehenengo teknikaren bidez ikusi ahal izan da gune bakar batean espazio ezberdinak planteatzen direla, haietan kamera eta kartelak modu hausnartu batean jarriz, baina elkarrizketen bidez leku ez ikuskatuak (ofizialki behintzat, hau da, kamerarik gabeko guneak) hain ezkutuak ez direlaren ideia behin eta berriro agertu da. Elkarrizketatu guztiek edo ia guztiek hauetan ere ezkutatutako kamerak daudela aitortzen dute, beraz hasiera batean planteatutako banaketa zurruna horrelakoa ez dela ondorioztatu beharra dago.

Bestalde, eta arestian aipatu den bezala, kanpoaldearekiko konparaketa, hau da, auzunea hiriko gainontzeko guneekin etengabe aldatzearen tendentzia, haren estigma eta irudia zabaldu ahal izateko, bai agertu da, baina autoritateen diskurtsoan izan beharrean auzokideen diskurtsoetan. Kontua da hauek ez dutela haien auzoaren estigmatizazio bat bilatzen, baina haiekin hitzegiterakoan etengabe aurkitzen da San Franzisko Bilboko gainontzeko auzo batzuekin (Alde Zaharrarekin bereziki) konparatzeko nahia, auzoaren egoera salatzerako orduan. Autoritateen diskurtsoak aztertzerako orduan ordea ez da horrelako konparaketarik aurkitu.

Azkenik, gune horren dinamikak praxiaren bidez eraldatzearekin lotura daukan puntuarekin ezin dut ondorio finkorik atera. Egia da badagoela lekuan lekuko autoritateekin (polizia, udal zerbitzuak...) nolabaiteko harreman eta elkarbizitza bat, gehienetan baketsua izan ohi dena, baina harreman hori hain da isilpekoa eta kokatua ezen hori aztertzerako bideratuta zegoen teknikaren bidez (bigarrena hain zuzen) ezin izan dut ondorio garbirik atera, geroago azalduko ditudan arrazoiengatik.

Beste puntu batera igaroz, diskurtso ezberdinen analisiak burutu eta gero, autoritateen eta auzokideen arteko diskurtsoen arteko desberdintasun ugari topatzen dira. Nahiz eta azken hauen (auzokideen artean) artean desberdintasun puntu asko dauden arren, euren jatorriak eta honek eratorritako bizi esperientziez determinatuak, ezberdintasun handienak lehen esan bezala autoritateen eta bertakoen artean topatzen dira. Bertako auzokideek bigilantzia auzoaren egoerarekin lotzen dute, hau da, auzoaren degradazioa delinkuentziaren areagotzearekin eta azken hau kameraren kokapenarekin eta sekurizazio prozesuarekin.



Autoritateek aldiz, ez dute horrelako analisirik egiten. Bestalde, auzokideen partetik instituzioekiko neke eta konfrontazio jarrera bat ikus daiteke, auzoaz arduratzen ez direla eta kalea kamerez bete dutela leporatuz.

## ZUZENKETA

Ondorio hauek guztietaz aparte, marko teorikoan planteatutako zenbait konturen zuzenketa egiteko beharrean aurkitzen naiz, San Franziskoko errealitatean betetzen ez direnez gero. Zuzendu beharreko atala gentrifikazio prozesuaren etapei buruzkoa da. Bertan bi etapa bereizi ditut: lehendabizi auzoa zenbait komertzio abanguardistei (diseinatzaileak, artistak...) eskaintzen zaie bertan geratu daitezen laguntza oparoak eskainiz. Horrelako ahalmen ekonomikoa duten kolektiboak auzoan ezartzean, higiezinaren prezioa areagotu egiten da (Jorge Sequera, 2010: 125). Hau gertatu eta gero, pertsona guzti hauei laguntzak kentzen dizkiete eta “kanporatuak” izaten dira (*Ibidem*: 125). Atal horren amaieran nire planteamendua Sobre/Mesa dokumentalean agertzen diren agente gentrifikatzaileak lehenengo fasekoak zirela zen, eta gaur egungoak bigarren fase batekoak, non higiezinaren prezioa jada puztuta zegoen, hau da, lehenengo fasekoek prestatutako zorua okupatzen ari zirenak.

Zuzenketa higiezinaren prezioaren puztutzearekin dago harremanetan, elkarrizketatu baten esanetan, ez baitziren lehenengo fase horretan igo, orain ari baitira igotzen ari. Hau hórrela izanda, bi fase horien planteamendu teoriko hori birmoldatu beharko litzateke San Franziskoko kasurako, fase bakoitzeko subjektuaren nortasuna egokiago definituz.

## AUTOKRITIKA

Azkenik, Ikerketa honetan zehar pertsonalki bizi izandako esperientzietatik zenbait ondorio metodologiko planteatzeko beharrean ikusten dut neure burua, horien inguruan hausnarketa bat iradokitzeke asmoarekin. Ikerketa honetan burututako tekniken egokitasun, sakontasun eta trebetasunarekin zerikusia daukate guztiak.

Lehendabizi, behaketa etnografikoaren harira zenbait kontu azaldu behar ditut, arestian behin baino gehiagotan esan dudana bezala.

Etnografia hau modu desantolatu eta desegituratu batean egiteak hainbeste bizipen, ikusitako, sentitutako, entzundako gauza nola plazaratu arazo bat zekarren. Nola idatzi hainbat loturagabeko, esperientzia bakanak, eta aldi berean hain elkarrekiko logikoak? Hartutako erabakia, errelatoarena, baliteke metodologikoki egokiena ez izatea, baina horrek bizipen guzti horien kondentsazio bat burutzea eta forma logiko bat ematea ahalbidetu dit.

Honetaz aparte, etnografiak baditu nolabaiteko hutsune batzuk. Esaterako, behaketa soilik arratsaldez burutu egin dut. Horrek goizean soilik eman daitezkeen zenbait dinamika (suposatzearen, kale gentrifikatuen lasaitasuna, San Franzisko kaleko denden zabalera, genderik gabeko kaleen sentsazioa...) galtzea dakar.

Bigarren eta azkenik, elkarrizketen harira beste hainbat kontu azaltzeko beharrean aurkitzen naiz, hauek izan ditzazketen zenbait hutsune eta gabezia argitzeari begira.

Ikerketa honetan lau elkarrizketa soilik burutzeak diskurtsoak eta hauen barne egitura aztertzeke oso material gutxi eskaintzen dute, baina denbora premiak ez du tamales gehiagorako betarik ematen. Hurrengo batean sakonago eta zuhurrago burutu beharko da

SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN:  
PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA,  
TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA



horrelako lana eskatzen duten teknikek. Beste alde batetik, ez da emakumerik elkarriketatu, aldagai horrek diskurtsoetan izan zezakeen inzidentzia eta matizak antzemateko aukera profitatu ez delarik.

## ERREFERENTZIAK

---

### BIBLIOGRAFIA

- Abad Medina, Paula; (2007) Notas sobre la noción de resistencia en Michel de Certeau; *Kairos*; 11; 1-11.
- Abad, S. S. (2012). Paisaje e industria en el Bilbao del despegue (1860-1930). *Historia Contemporánea*, (24). (224-243)
- Askunze, C. (2001). Rehabilitación de barrios desfavorecidos y participación ciudadana. La experiencia en el Área de Bilbao La Vieja. *Participando en la red. Anuario de movimientos sociales. Barcelona: Icaria*, 214-222.
- Babbie, E. R. A., Etxebarria, J., & Gil, I. (1996). *Manual para la práctica de la investigación social* (No. C/001.42 B3).
- Cantos, D. A., & García, S. (2015). *Enclaves de riesgo: gobierno neoliberal, desigualdad y control social*. Madrid: Traficantes de sueños
- Chasco, S. R. (2014). Videovigilancia en el centro de Madrid. ¿hacia el panóptico electrónico?. *Teknokultura*, 11(2), 301-327.
- Contrahistoria, (2013) Urbanismo y arquitectura como expresión ideológica. Tercera Parte: El sistema de sentido único. Capitalismo, control de masas y arquitectura represiva; *Contrahistoria*; 6; 54-63
- De Certeau, M. (2001). "De las prácticas cotidianas de oposición". In *Modos de hacer: arte crítico, esfera pública y acción directa* (pp. 391-426). Ediciones Universidad de Salamanca.
- Doreen, M. (2005). La filosofía y la política de la espacialidad. *Pensar este tiempo. Espacios, afectos, pertenencias*. Paidós: Madrid
- EUSTAT; (2010) *Análisis de tipos de las secciones censales de la C.A. de Euskadi*; Eusko Jaurlaritza.
- Uwe, F. (2004). *Introducción a la investigación cualitativa*. Ediciones Morata SL Madrid.
- Foucault, Michel (1999) "Espacios Otros". *Version. Estudios de comunicación y política*; 9;15-26.
- Gallego, M. J. C., & Rojas, A. V. (2005). *Proyectos y estrategias de investigación social: la perspectiva de la intervención*. McGraw-Hill.
- Gangoiti, J. M. B. (2003). Jerarquización social del espacio urbano en el Bilbao de la industrialización. *Scripta Nova: revista electrónica de geografía y ciencias sociales*, (7), 22.
- García, S. G., & Cantos, D. Á. (2016). La prevención securitaria como modo de gobierno: el caso de Madrid. *Athenea digital, revista de pensamiento de investigación social*. Vol. 16 Núm. 1 (marzo 2016), p. 43-82. Madrid
- Juaristi, Patxi (2003) *Gizarte ikerketarako teknikak*; Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua.
- Neocleous, M. (2016). La lógica de la pacificación: guerra-policía-acumulación. *Athenea digital, revista de pensamiento de investigación social*. Vol. 16 Núm. 1 (marzo 2016) p. 1-12 Madrid.
- Sequera, J. (2010). Prácticas distintivas y control urbano como mecanismos de gestión de las conductas: el caso de Lavapiés (Madrid). In *Ciudad, territorio y paisaje: Reflexiones para un debate multidisciplinar* (pp. 119-133).
- USSÍA, C. R. (2014). *Historia de la prostitución en Euskal Herria*. Tafalla: Txalaparta
- Valles, M. S. (2000). *Técnicas cualitativas de investigación social*. Madrid: Síntesis Editorial.



## BIDEOTEKA

- EITB (2013) *¿Son necesarias las cámaras de seguridad en el barrio de San Francisco?*
- TantoMonta & MontaTanto (2012) *Sobre/mesa*

## HEMEROTEKA

- Europa Press (2008/02/22) Azkuna anuncia que el barrio de San Francisco contará con cámaras para “vigilar mejor la calle”. *El Correo*.
- Josu Garcia (2008/02/23) Azkuna anuncia ahora que pondrá cámaras de vigilancia en San Francisco. *El Correo*.
- Santiago González (2008/02/23) Un ojo a la calle. *El Correo*.
- Luis Gómez (2008/02/26) El PP pide colocar cámaras de videovigilancia en Bilbao la Vieja y Miribilla. *El Correo*.
- Luis Gómez (2008/02/27) El número de delitos se duplica en Miribilla en solo cuatro años. *El Correo*.
- Ainhoa de las Heras (2008/02/29) 14 cámaras vigilarán San Francisco a final de años para combatir la criminalidad. *El Correo*.
- Ainhoa de las Heras (2008/03/01) San Francisco se deja ver. *El Correo*.
- J.G. (2008/07/09) Los policías tendrán que reciclarse. *El Correo*.
- Ainhoa de las Heras (2008/09/21) “Salvo en bancos y joyerías, no se justifica mantener a vigilantes con armas” . *El Correo*.
- Vasco Press (2009/09/29) Las imágenes de las cámaras de San Francisco llegaron a la Ertzaintza en noviembre. *El Correo*.
- Estíbaliz Santamaria (2009/09/30) 18 cámaras tejen una malla de vigilancia en San Francisco. *El Correo*.
- A.H. (2009/12/12) “Nadie controla las cámaras de San Francisco”. *El Correo*.
- Ainhoa de las Heras (2010/03/06) Los “Iker” contra los cacos. *El Correo*.

## WEBGRAFIA

- Bilbo zenbatekotan:  
[http://www.bilbao.net/cs/Satellite?cid=3000038782&language=eu&pagename=Bilbaone%2FPage%2FBIO\\_listadoPublicaciones](http://www.bilbao.net/cs/Satellite?cid=3000038782&language=eu&pagename=Bilbaone%2FPage%2FBIO_listadoPublicaciones) (2016ko apirilaren 15ean azkenengoz kontsultatua)

SEKURIZAZIO PROZESUA BILBOKO SAN FRANZISKO AUZOAN:  
PANOPTIKOA, GENTRIFIKAZIOA,  
TAKTIKAK ETA ERRESISTENTZIA





## ERANSKINAK

---

### ELKARRIZKETEN GIDOIAK:

#### **29 urte baino gutxiagoko bertakoa**

-Agurra eta azalpena.

-Sarrera gaia:

Auzoari buruz pentsatzean burura etorritako, hitzak, pentsamenduak...

1- Gaia:

Instituzioetatik zer nolako tratamendua jasotzen da auzoarekiko. Nola ikusten dira udala, polizia...

2- Gaia:

Kameren kokapenari inguruko hausnarketa. Hauen zergatia, kokapena eta kokapen eza...

4- Gaia:

Kontrasteak. Kamerarik gabeko guneen eraikin, pertsonen... ezaugarriak. Zeintzuk dira kameradun eta kamerarik gabeko guneen arteko desberdintasunak?

#### **29 urte baino gehiagoko bertakoa**

-Agurra eta azalpena.

-Sarrera gaia:

Auzoari buruz pentsatzean burura etorritako, hitzak, pentsamenduak...

1- Gaia:

Orain eta lehengo egoeraren arteko konparaketa. ("lehengo" zer den zehaztu gabe)

2- Gaia

Instituzioetatik zer nolako tratamendua jasotzen da auzoarekiko. Nola ikusten dira udala, polizia...

3- Gaia:

Kameren kokapenari inguruko hausnarketa. Hauen zergatia, kokapena eta kokapen eza...

4- Gaia:

Kontrasteak. Kamerarik gabeko guneen eraikin, pertsonen... ezaugarriak. Zeintzuk dira kameradun eta kamerarik gabeko guneen arteko desberdintasunak?





**29 urte baino gutxiagoko atzerritarra**

-Agurra eta azalpena.

-Sarrera gaia:

Auzoari buruz pentsatzean burura etorritako, hitzak, pentsamenduak...

1- Gaia

Instituzioetatik zer nolako tratamendua jasotzen da auzoarekiko. Nola ikusten dira udala, polizia...

2- Gaia

Bertakoen eta etorkinak berdin tratatuak diren instituzioen partetik.

3- Gaia:

Kameren kokapenari inguruko hausnarketa. Hauen zergatia, kokapena eta kokapen eza...

4- Gaia:

Kontrasteak. Kamerarik gabeko guneen eraikin, pertsonen... ezaugarriak. Zeintzuk dira kameradun eta kamerarik gabeko guneen arteko desberdintasunak?

**29 urte baino gehiagoko atzerritarra**

-Agurra eta azalpena.

-Sarrera gaia:

Auzoari buruz pentsatzean burura etorritako, hitzak, pentsamenduak...

1- Gaia

Instituzioetatik zer nolako tratamendua jasotzen da auzoarekiko. Nola ikusten dira udala, polizia...

2- Gaia

Bertakoen eta etorkinak berdin tratatuak diren instituzioen partetik.

3- Gaia:

Kameren kokapenari inguruko hausnarketa. Hauen zergatia, kokapena eta kokapen eza...

4- Gaia:

Kontrasteak. Kamerarik gabeko guneen eraikin, pertsonen... ezaugarriak. Zeintzuk dira kameradun eta kamerarik gabeko guneen arteko desberdintasunak?